

Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara:

Kolonbiako eta Euskadiko
historiak uztartzen.



Mundubat

Babeslea



Azala: Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara:
Kolonbiako eta Euskadiko historiak uztartzen.

ALDARTE Taldeak (Lala Mujika, Amparo Villar; Elena Olaortua,
Cristina Rueda) burututako ikerketa

Diseinu eta maketazioa: igancios@yahoo.es

Bilbon, 2020ko ekainean.



Mundubat

AURKIBIDEA

➤ Aurkezpena	4
➤ Ikuspegi teorikoaren ardatzak	7
Aniztasuna	
Intersekzionalitatea	
Genero-ikuspegia	
➤ Kolonbia-Euskadi bizitza-historiak	25
Verónica, Lorena, Mayra, Jazmín, Cristina, Eider, Carito	
➤ Bizitza-historien analisiak	59
Sarrera	
Biziraupen-mekanismoak	
Aurre-egiteko jokabideak	
Eraldatze-estrategiak	
➤ Gida-galderei buruzko amaierako hausnarketak	87
➤ Bibliografia	101

Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara:
Kolonbiako eta Euskadiko historiak uztartzen.

AURKEZPENA (MUNDUBAT)

2018. urtetik, Mundubat Fundazioak Estrategia Orokor bat dauka, bere lanaren hiru alor nagusiak biltzen dituena: Giza Eskubideak, Elikadura-burujabetza eta Generoa eta Feminismoak. Azken horren xedea sistema heteropatriarkal kapitalistak sortutako zapalkuntza eta diskriminazio interseksionalen aurka borrokatzeko ekintza estrategikoak proposatzea da. Tradizioz, lan-ildo horren zeregin nagusia mugimendu feminista eta haren eskariak babestea izan da, baina heteropatriarkatuaren aurkako borroka-ekintzak lan-tzerakoan behar-beharrezkoa da sistema heteronormatiboek inposatutako ordenak zalantzan jartzen dituen errealitateak, genero-disidentziak zigortzen dituenak, nola ez txertatu hausnartzea, bai feminismoetatik abiatuta, bai gorputzetatik, sexutik edo sexualitatetik abiatuta.

Mundubat Fundaziokoko kideoi beharrezkoa iruditzen zaigu gure proposamenetan feministen eskariekin batera, sexu-eskubideak eta askotariko genero-identitateak defendatzen dituztenen eskariak uztartzea. Jakin badakigu tresnak falta zaizkigula gai horiek proposatzean ondorio kaltegarriak sortuko

ez dugula bermatzeko, nola lankidetzan dihardugun emakume feministen erakundeetan, hala LGTBI+ erakundeetan.

Horregatik guztiagatik, eta gizarte feminista barneratzaile bat eraikitzeke daukagun konpromisoaren erakusgarri, non sexua eta generoa ez diren diskriminazioaren aldagai izango, gure lan-esparruen testuinguruetara egokitutako ezagutza sortzeko pausoak eman behar ditugula uste dugu, hau da, modu kontzientean informatzeko eta sexu- eta genero-aniztasunen espezifikotasunak ulertzeko aurrerapausoak eman behar ditugu, era horretan, erakundearen posizio-hartze egoki eta koherente bat eraikitzeke. Ildo beretik, ikerketa hau ikaskuntzaren, elkartrukearen eta informazio-sorkuntzaren ibilbide horretan kokatzen da; sistema patriarkalak inposatutako askotariko bazterkeria motak identifikatzeko eta haien aurka borrokatzeko gure erakundearen beste esfortzu bat da.

Azkenik, eskerrak eman eta euren lana aintzatetsi nahi diegu bai landa-lana burutu duten gure lankideei, mimo handiz istorio zinez aberasgarri hauek eraikitzea lortu baitute, eta baita euren bizitza-historia kontatu diguten emakume ausart horiei ere, ikerketa hau horiek gabe ezinezkoa izango bailitzateke.

Generoa eta Feminismoak saila,
Mundubat Fundazioa

IKUSPEGI TEORIKOAREN ARDATZAK

Jarraian, ikerketa hau elikatu duten ikuspegi teorikoaren ardatzak aurkeztuko dira: ikerketaren planteamendua, bere landa-lana eta landa-lanetik lortutako informazioaren azterketa elikatu duten ardatzak.

Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara:
Kolonbiako eta Euskadiko historiak uztartzen.

Lehenengo ardatza:

ANIZTASUNA

Sexu- eta genero-aniztasuna (aurrerantzean SGA)

Pertsona guztiak aniztasun horren parte gara

Aniztasuna pertsoneri datzekien zerbait da; gizakiek sortzen dituzten taldeetan eta burutzen dituzten jardueretan ageri da.

Gure sexualitatea askotarikoa da, eta gure generoa ere bai. Generoa bizitzeko eta gure sexualitatea adierazteko modu asko daude. Aniztasunak gure aukerak biderkatzen ditu eta **zaindu eta sustatu** beharreko **aberastasun** bat eraikitzen du.

Sexualitatea¹ eta generoa² pertsonen sailkapenerako erabil-

¹ Sexualitatea gure desioak erregulatzen dituen sistema da. Erregulazio hori eredu nagusi bati jarraitzen dion testuinguru sozial batean gauzatzen da; eredu neoliberal, etnozentriko eta heteronormatibo batean, mundu-mailako arazo handiengan eragiten duena, baina baita gure eguneroko bizitzengan ere.

² Generoa “gorputzak” pertsona-kategoria desberdinetan sailkatzen dituen antolamendu soziala da. Gaur egun, gure testuinguru kulturean sailkapen hori sexuan oinarritzen da, eta bitarra da, binarioa. Jaiot-

tzen diren “kategoria” horietako batzuk dira, sailkapen deserosoa maiz, etiketak jartzen baitizkigu eta zaila baita horietatik irtetea. Pertsona asko behartuta ikusten dira euren generoan edo euren jarduera afektibo-sexualean oinarrituta ezaugarri komunak dituen kolektibo bateko kide gisa definitzera, eta euren desio eta afektibitateetatik haratago doazen ezaugarri sorta bat egozten zaie. Horiek horrela, zera azpimarratu nahi da, pertsona jakin baten sexualitateari edo generoari erreferentzia egiteko termino egokia ez litzatekeela behatzailearen arabera izan beharko, baizik eta pertsona jakin hori izan beharko litzatekeela hori erabaki beharko lukeena, berak bere esperientziari eman nahi dion esanahia-
ren arabera.

1, 2 eta 3 grafikoen bidez ikerketa honen testuinguruan sexu- eta genero-aniztasunak izan ditzakeen izenak adierazi nahi izan dira. Aniztasun hori hobeki irudikatzeko “+” ikurra eta “*” izartxoak erabili dira 1 eta 2 grafikoetako akronimoen alboan, eta horiek esanahi desberdinak izan ditzakete: hau da, oraindik identifikatu gabe dauden eta izenik ez duten sexualitateak eta generoak hartu direla kontuan; edo dena ezin dela sailkatu edo ez dela nahi izaten beti; edota sailkapenak pertsonen aukeren mende daudenez, aldakorak direla denboran zehar eta pertsona horien egoera eta bizi-baldintzen arabera direla.

zean, genitalitatearen arabera, emakumezko edo gizonezko genero bat eta hari lotutako rola esleitzen zaizkigu. Emakumeek gizonenekin alderatuta jasaten dituzten desparekotasun eta zapalkuntzetako asko generoan oinarritzen dira. Generoa kontingentea da (faktore askoren mende dagoena), historikoa eta kultura batetik bestera aldatzen dena.


Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara:
Kolonbiako eta Euskadiko historiak uztartzen.

3. grafikoan indigenen identitate sexualak eta genero-identitateak aipatu dira, hau da, munduan zehar kolonizatuak izan diren lekuetako identitateak, existitzen jarraitzen dutenak eta ahulak direnak, kolonialismo ekonomiko, politiko eta identitarioaren biktimak baitira. Horiek aipatu izanaren beste arrazoietako bat zera da, sexu- eta genero-aniztasuna ulertzeko eredu ez-mendebalder eta ez-bitarrak irudikatzen dituztela, betidanik existitu izan direnak, berariaz ikusezin bihurtu dituztenak, eta sexualitatea eta generoa ulertzeko izugarritzko baliabide intelektuala osatzen dutenak, mendebaldean ditugun gakoak baino gako gehiago erabiliz.

Sexu- eta genero-aniztasunaren arautze sozialak eta legalak eredu nagusi patriarkal, heteronormatibo, neoliberal eta etnozentriko bati jarraitzen dion testuinguru batean gauzatzen dira. Eredu horrek ilegalizatuz, patologizatuz eta arautik edo mundu-ikuskerara mendebalderetik at dauden sexualitate eta genero horiek baztertuz funtzionatzen du.



1. grafikoa. Trans* aniztasunaren hodeia.
Iturria: norberak egina.



2. grafikoa. Sexu-aniztasunaren hodeia.
Iturria: norberak egina.

Sexu- eta genero-identitate indigenena



3. grafikoa. Sexu- eta genero-identitate indigenen hodeia.
Iturria: norberak egina.

↳ **Ikusezintasun lesbikoa: indarkeria ikusezinenetako bat**

Emakumeak maite dituzten emakume askok munduko leku ugarritan jasaten duten ikusezintasunaren kondena lesbianeiei ezartzen zaien indarkeria handien artean dago.

Desira lesbikoa dituzten emakume askoren nahitaezko ikusezintasuna gutxi hausnartu den gaia da. Adierazpen sexualaren askatasuna ez da mugatzen soilik baldintza errepresiboak izan arren bizimodu propioak izatea lortu duten horien, hau da, LGTBI+ izatea lortzen dutenen eskubideak aitortzera, bai zik eta askatasun horrek barne hartzen du euren autonomia egikaritzeko aukera demokratikoa ez duten eta legitimazio soziala duen aukera bakarra —heterosexualitatea— onartzen duten edo, estrategikoki, bizirauteko, anonimotasunean egoitea erabaki dutenen pertsona-multzoa. Ezin da ahaztu ikusezintasuna dela sistema heteroarautu honek arautik irteten diren pertsonen bazterketa benetan eraginkorra izango dela bermatzeko duen tresna edo baliabide handietako bat.

Emakume lesbianen aurkako indarkeria-ekintza esplizituak lesbianen kolektibo osoari bideratutako mezuak dira, erasoaren, irainaren, mespretxuzko begirada eta abarren bidez gauzatzen direnak. Indarkeria-ekintza bakoitzak zera adierazten die emakume lesbianeiei; ez bazara isiltasunean gertatzen, gauza bera gertatuko zaizu zuri. Eta horrek beldur handia sortzen du. Ondorioz, ikusezintasunaren atzean izua eta beldurra daude, eta baita sentitzen denarekiko eta norbera denarekiko errua eta lotsa ere (Mujika Flores, Inmaculada et al., 2015).

Ikusezintasun lesbikoa aintzat hartzea eta balioesteak zera esan nahi du, kontuan izatea nahiz eta ez den hitzezko mehatxu zuzenen edo emakume lesbianekiko eraso fisiko zuzenen bidez adierazten, berau pertsona horien segurtasunaren eta adierazpen-askatasunaren aurka erabiltzen den indarkeria bat dela. Beren sexu-autonomiaren, pribatutasunaren, berdintasun sexualaren eta plazer sexualaren aurka doan indarkeria bat da.

Zaila da kanpoko presio sozialek behartu ez duten ikusezintasun-egoera bat irudikatzea. Ikusezintasun-egoera bat gertatzen denean, behartutako egoera bat izan ohi da, indarkeriaren ondorioa, eta ia inoiz ez da borondatezko aukera bat izaten. Soilik ikusgarritasunez bizi daiteke lesbianismoa osotasunean. Ikusezintasuna, edozein indarkeria bezala, oztopo larri bat da gizartean parte hartzeko eta eskubideak erabiltzeko. LGTBI+fobiaz gain, axolagabekeria eta aitorten eza (nola soziala hala legala) dira emakume lesbianak ikusezintasunean geratzera derrigortzen dituzten arrazoiak.

Emakumeen sexualitatearekiko begirada sexistak lesbianismoaren ikusezintasuna bultzatzen du. Indarkeria hau emakumeei posizio sozial kaskarragoa (edo nulua) esleitzen zaien eta duten testuinguru batean garatzen da, non emakumeek ez dituzten onartuta dauden eskubideetako asko, batik bat sexu-eskubideei buruzkoak, non emakumeak ez diren euren sexualitatea finkatzeko eta euren gorputzari buruzko erabakiak hartzeko eskubidea duten izaki indibidual gisa aitortzen. Halaber, testuinguru horretan integrismo erlijiosoak edota eskuin setatiak daudela kontuan izan behar da, egunetik egunera gero eta indar handiagoz emakumeen eta lesbianen aho-

Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara:
Kolonbiako eta Euskadiko historiak uztartzen.

tsak isilarazteko neurriak eskatzen dituztenak, emakumeek beren gorputzaren eta beren sexualitatearen kontzientzia hartzea mehatxu gisa ikusten baitute. Testuinguru horietan, sexualitateari buruzko erabaki bat hartzeak eta lesbiana izatea erabakitzeak dimentsio askotako bereizkeria ekar dezake emaitza gisa (Mujika, I., 2008).

Azpimarratzekoa da ikusezintasunak, indarkeria gisa, emakume lesbianeiei eragiten diela bereziki, gizonezkoen homosexualitateari eragiten ez dion forma bat hartzen duelarik, eta lesbianismoak historian izan duen existentzia ezaren ondorio bat da. Lesbianismoari ezartzen zaion ikusezintasunak ez dauka dimentsio sozial bat soilik, dimentsio legal bat ere badauka: hala, gizonezkoen homosexualitatea maiz modu esplizituan zigortzen den bitartean, herrialde askotan emakumeen sexualitatea ez da agertzen inolako araudi ofizialean, suposatzen baita ez duela arautze legalik behar, ez baita beharrezkoa existitzen ez den zerbait arautzea; izan ere, ez da aurreikusten bi emakumeek modu librean eta euren borondatez haien artean sexu-harremanak izateko aukera. Ikusten ez dena, ez da existitzen eta, ondorioz, ez da arautzen. Era horretan, estatuek ofizialki emakume lesbianak ez existitzera kondenatzen dituzte.

Bigarren ardatza:

INTERSEKZIONALITATEA

↳ **Begirada interseksionala**

Begirada interseksionalak honako hau proposatzen eta aztertzen du: gizarteak eta kulturak eraikitako bereizkeria-kategoria desberdinek askotariko eta aldi bereko alorretan elkarri nola eragiten dioten, desparekotasun sozial sistematikoa sustatuz. Ikuspegi teoriko honek zera azpimarratzen du, beste zenbait kategoria sozialen artean, gizarte-klasea, generoa, etnia, adina, dibertsitate funtzionala, orientazio sexuala eta genero-identitatea eraikitako kontzeptuak direla eta elkarren artean lotuta daudela, ez dutela elkarrekiko modu independentean jarduten eta bereizkeria mota askoren interseksionalitatea islatzen duen zapalkuntza-sistema bat sortzen dutela.

Begirada horretatik abiatuta, dokumentu honetan zapalkuntza-ardatzen arteko elkarreagina eta interdependentzia nabarmendu dira, eta ikuspegi konplexu bat azaldu da, non emakume lesbianak aldi berean posizio sozial desberdinetan dauden, dimentsio bat besteei gailentzen zaien nagusita-

Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara:
Kolonbiako eta Euskadiko historiak uztartzen.

sunaren ikuspegi hierarkikoa hartzea saihestuz. Era horretan, zapalkuntzak gehitu egiten direla dioen logika gainditzendu, emakume lesbianen eta bisexualen ohiko sailkapenean gertatzen den eran, horien arabera emakumeak bi aldiz edo hiru aldiz diskriminatzen baitira generoagatik, sexu-orientazioagatik, etniarengatik, azalaren kolorearengatik, eta abar (Coll-Planas, 2012).

Pertsonen identitateak askotarikoak dira: emakumeak izan gaitzke, lesbianak, bisexualak, kolonbiarrak, euskaldunak, migratzaileak edo alderdi politiko jakin bateko boto-emai-leak. Pertsonok osotasun bat sortzen dugu, eta gure bizitza identitate-alderdi askoren sintesi bat da. Unean uneko gure zapalkuntza-testuinguruaren arabera, intentsitate gehiagorekin edo gutxiagorekin erakutsiko dugu identitate bat edo bestea, eta estrategia jakin batzuk erabiliko ditugu bazterkeria-egoera desberdinei aurre egin eta erantzuteko: bakarrik egon eta etxean geratzeko erabakia; ikusezin bihurtzea bizi-rauteko aukera gisa; salaketa bat jartzea polizia-etxean; jatorrizko herrialdetik ihes egin eta harrera-herrialde batean asiloa eskatzea; kirol-topaketak eta jarduera kulturalak antolatzea; aktibismo sozial kritiko bat gauzatzea, eta abar.

Lesbianek eta bisexualek jasaten dituzten zapalkuntza-egoera horiek beste aldagai sozial batzuekin duten lotura hobeki ulertzeko (esate baterako, adina, etnia, jatorri kulturala, txi-rotasuna edo lan-egoera), jarraian aurkeztuko diren errealitateak aztertu dira. Lesbiana edo bisexuala izanda ere, gizarte-klase jakin batekoak gara, testuinguru jakin batean gaude edota adin jakin bat daukagu. Hau da, bizi ditugun menderatze-egoeren aurrean, gure ustez lesbiana edo bisexuala iza-

teak ez gaitu berdintzen. Interseksionalitateak zera dakar, pertsonen eta giza taldeen bizitzetan dauden menderatzeen, zapalkuntzen eta pribilegioen aniztasuna eta zapalkuntza-egoeren aurrean horiei aurre egiteko abiarazten diren estrategiak ikuspegi guztietatik lantzea. Begirada hori erabili ezean, bereizkeria mota batzuek beste batzuek baino arreta handiagoa jasotzearen egoera betikotu genezake.

Begirada interseksional horri jarraiki, dokumentu honek iker-tze-prozesuan zehar zaugarritasun-arrisku handiena duten dimentsio gisa identifikatu diren horiei buruzko hausnarketa bat osatu du: *gorputzaren arrazializazioa* edo aurreiritzi arrazisten ondoriozko bazterketa; *sexilioa* edo jatorrizko lekutik migratzea beste emakume batzuekiko desira izateagatik; *erreferentziazko komunitate kultural edo erlijiosoaren eragina*, LGTBI+ pertsonen aurkako bazterketa sortzen duena; *bisexuala izatea* eta, hasiera batean, kolektibo berekoak diren kideen ulermen eta onarpen eza sentitzea; lesbiana edo bisexuala izateak dakarren *zigor orokorra*, emakume “ez osoarekin”, zuzena ez denarekin hertsiki loturik dago, emazte-emakumearen edo ama-emakumearen rolari uko egiten diona.

Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara:
Kolonbiako eta Euskadiko historiak uztartzen.

Hirugarren ardatza:

GENERO-IKUSPEGIA

↳ Binarismoa

Pentsamolde mendebaldar modernoa sexua-generoa binarismoan ardaztuta dago eta, ondorioz, aurkako eta loturarik gabeko sailkapenak finkatu ohi ditu: gizona/emakumea, gizona/zonezkoa/emakumezkoa, aktiboa/pasiboa, cis/trans, heterosexual/homosexual, eta abar. Binarismo horrek muga guztiz argiak eta hierarkikoak ezartzen ditu aurkakoen artean, jendeari horiek gurutzatzeko gogoak kentzen dizkienak. Hala, adibide bat aipatzearen, imajinaezina iruditzen zaigu gizonetzkoetatik edo emakumezkoetatik haratago doazen generoak sentitzea edo horiekin identifikatzea.

Binarismoa mendebaldeak globalizatu duen eraikuntza sozial bat da. Gaur egun, oraindik ere sexualitatea eta generoa binarismo horren bidez ulertzen ez dituzten kulturak badirela jakiteak, bai Amerikan eta bai Asian, berau kulturaren emaitza dela frogatzen du, eta errealitate horretatik ihes egin daitekeela eta ihes egin beharko genukeela³ (Allard, O., 2013).

³ Genero ugari dituzten gizarteen adibide asko daude, eredu bita-

Gogorarazi behar da gorputzak (maiz arrazializatuak) eta generoak etengabe banatu eta polarizatu izan dituztela ordena sozial jakin bat mantentzeko (patriarkala, etnozentrikoa, heteroarautzailea eta neoliberalala).

Bitartasuna albo batera uzteak mahai gainean jartzen du sexu- eta genero-sistema askotarikoen defentsa eta gure esperientziak sexua eta generoa modu binarioan hartuz definitzen dituzten arau inposatuen aurkako borroka.

Gaur egun, gure testuinguru kulturean, eta bitartasuna hautsi nahi duten gizataldeen eskutik, generoa bizitzeko beste modu batzuentzako hizkuntza ez-bitar bat sortzen hasiak gara, besteak beste, gaztelaniazko “e”, “x”, “@” bukaeretan edo “genero ez bitar”, “genero neutro” edo “agenero” kontzeptuetan islatzen dena; bitartasunean kateatuta ez dagoen eta dinamismora eta malgutasunera bultzatzen gaituen hizkuntza bat.

rra eta dimorfismo biologikoa alde batera uzten dutenak. Esate baterako, Indonesiako Sulawesi Irlako bugis etniakoek bost sexu-identitate orokor aitortzen dituzte: gizona (oroane), emakumea (makkunrai), emakume gisa jokatzeko duen gizona (calabai), gizon gisa jokatzeko duen emakumea (calalai) eta identitate mistoak eta ez iraunkorrak dituztenak (bissu). Siberiako txuktxiek, bestalde, zazpi genero aitortzen dituzte: gizonezkoa, emakumezkoa, hiru genero gehiago biologikoki gizonezkoak direnentsat eta beste bi biologikoki emakumezkoak direnentsat. Ohikoenak hirugarren genero bat identifikatzen duten lurraldeak dira. Crow amerindiarren artean, baziren gizonezko xaman batzuk emakumezkoen jantziak jarri eta gerlariei sexu-mesedeak emateaz arduratzen zirenak. Antzeko zerbait atzeman zen mohave, zuni, hopo, navajo, yuman, yokut, papago edo txeiene kulturetan. Bestalde, zenbait herrialdetan (Alemania, Zeelanda Berria, Australia, Nepal, Pakistan, India, Bangladesh edota Kanadan) hirugarren genero baten aitortza ofizialak eman ohi dira (hijrak, hirugarren generoa, X...)

↳ Ohiko sexu/genero sistema bitarra zalantzan jartzea

Binarismoa sexu eta genero aniztasunarekin eta, aniztasun hori aintzat hartuta, sexu/genero sistemarekiko⁴ egin daitekeen planteamenduarekin lotutako gai bat da (NAHIA, 2016).


1. taulan berde kolorez gure ohiko sexu/genero sistema bitarreko *araua*⁵ irudikatu da, eta laranja kolorez *arautik kanpo geratzen direnak* irudikatu dira, ohiko sexu/genero sistema arautua zalantzan jartzen dela islatzen dutenak.

Atal berdeari erreparatuz gero, sexua, generoa eta desira modu lerrokatuan, berezkoan eta hierarkikoan onartzen direneko eredu bitarra ikusiko dugu. Adibidez, suposatzen da emakume jaiotzen zarela, emakumezkoen ugalketa-organoeekin, identitate bat eskuratzen duzula, emakumezkoen adierazpenak eta rolak daukazula (gizonezkoen azpitik daudenak), eta gizonekiko erakarpen heterosexuala sentitzen duzula. Planteamendu arauemaile horretatik (eremu laranja) irtean diren guztiak baztertu, estigmatizatu, patologizatu, jazarri eta ikusezin bihurtuak izango dira: bollerak, lesbianak,

⁴ Sexu/genero sistemak, Gayle Rubinek 1975ean sortu zuen kontzeptuak, gizarte-eredu bat erakusten du, non sexualitate biologikoak gizon eta emakumeen arteko desparekotasunak sortu dituen, prozesu horretan kaltetuenak emakumeak izan direlarik. Gizonen eta emakumeen artean dauden mendekotasun eta dominazio-harremanak ulertzen laguntzen du, eta zera dio, desparekotasun horien kausa ez dela sexua, baizik eta gizarteak eraikitako genero-posizioak.

⁵ Teorian gizarteak jarraitzen duen hori, araututakoa edo hegemonikoa dena.

emakume transexualak eta transgeneroak, emakume maskulinoak, emakume intersexualak eta abar (Coll Planas, 2013).



1. taula. Norberak egina, Dibujando el género (Coll Planas, 2013) lanean oinarrituta.

↳ LGTBI+fobia eta matxismoa

Heterosexualitatearen —arau sozial hegemoniko gisa— eta genero-arau hertsatzaileen arteko lotura nabarmenetatik abiatzen gara. Ikuspuntu horretatik begiraturaz gero, emakume eta gizonen arteko desparekotasunen kontrako borrokak eta LGTBI+fobiaren aurkako borrokak sustrai bera dute: matxismoa. Borroka horiek ez dira bereizirik ikusten, konpartimendu hermetikoak balira bezala, elkarrekiko loturarik ez balute bezala.

LGTBI+fobia maskulinitatearen ikuskera patriarkalak aldatzeko oztopo nagusietako bat da.

Emakumeen aurkako indarkeriaren xedea emakumeak gizonaren mende daudeneko ordena soziala mantentzea baldin bada, LGTBI+ pertsonen aurkako indarkeriaren xedea gizonetzko eta emakumezko izatea zer den dioten muga zurrunik mantentzea da. Bi indarkeria mota horiek genero arautuaren egiturazko harremanak indartzen dituen sistema baten parte dira; alde batetik, emakumeak ordena guztietan gizonen mende daudela esaten digu, eta bestetik, heterosexualak izan behar dugula eta soilik bi genero daudela dio, jaiotzean esleitzen zaizkigunak eta bizitza osorako direnak. (González Pérez, 2014).

Generoaren ondoriozko indarkeria, oro har, araututako genero-egiturekin bat ez datozen pertsona horiek jasaten dute. Genero-indarkeria batez6 hitz egin ordez, genero-indarkeriez

⁶ Genero-indarkeriaren legea beste analisi batetik abiatzen da;

hitz egin daiteke. Emakumeek jasaten duten indarkeria eta LGTBI+ pertsonen pairatzen duten indarkeriaren artean desberdintasunak daudela jakin arren, aintzat hartu behar da genero arautuarekin bat ez datozen sexualitatea, gorpuztasuna edo generoa duten pertsonen mila indarkeria jasaten dituztela arrazoi horren ondorioz. (Butler, 2001).

emakumeen aurkako genero-indarkeriaren jatorria ez datza heteroarau-dia ez betetzean, baizik eta patriarkatuan eta indarkeria matxistaren continuumean. Sozialki, “genero-indarkeriaren” kontzeptua ildo horretatik ulertzen da. Gure proposamena kontzeptu hori zabaltzea da, generoaren ondorioz gertatzen diren beste indarkeria batzuk barne hartu ditzan, pertsona askok nozitzen dituzten eta ikusezinak diren indarkeriak aitortzeko asmoz. Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Mandatariaren Bulegoaren hitzetan, sexu-orientazioaren edo genero-identitatearen ondoriozko indarkeria genero-indarkeria bat dela azpimarratu nahi dugu, “genero-estereotipoei desafio egiten dietela diruditen itxura edo jokabidea duten pertsonak zigortzeko nahiak bultzatuta baitago”. Ikus: NAZIO BATUEN GIZA ESKUBIDEETARAKO GOI MANDATARIAREN BULEGOA Discriminación y violencia contra las personas por motivos de orientación sexual e identidad de género. 2015. A/HRC/19/41.

KOLONBIA-EUSKADI, BIZITZA-HISTORIAK

VERÓNICA

“Txarra al da munduari oihu egin ahal izatea lesbiana naizela eta nik ere, beste edozeinek bezala, kalean ibiltzeko eskubidea dudala?”

Verónica duela 24 urte jaio zen Calin eta Santander de Quilichaon bizi da. Etxeko hirugarren alaba da, neba zaharrago bat falta zaion familia batekoa; hura tranbesti-transexuala zen eta egoera tragiko batean hil zen, eta horrek izugarri eragin zion familiako giroari. Psikologian graduatua da, eta bere lan-esperientzia Lomitas eskualdeko ikastetxeetako gatazka armatuari buruzko proiektu bat garatzera mugatu da. Orain, *familiaren gauza guztiez* arduratzen da.

Zera dio bere haurtzaroari buruz, *oso ona izan zela eta esperimintatzeko⁷ jakin-min handia zeukala*. Auzoko bere jolasei dagokienez, zera oroitzen du, lehengusuekin eta lehengusinekin muxu ematera eta gorputzak ukitzera jolasten zirela. Familia oso katoliko batean hazi zen; ama gauetan bere alboan eseri eta *hankak belaunikarazi eta eskuak jasoarazten zizkion otoitz egiteko*, eta bere neba zaharrak lokartu zedin ipuinak irakurtzen zizkiola ere oroitzen du.

⁷ Letra etzanez idatzitako esaldiak elkarrizketatutako emakumeen hizketalditik literalki hartutakoak dira.

Bere nerabezaroa eta gaztaroa aipatzean, bere lesbianismoa onartzea ze gogorra izan zen datorkio gogora. Ez zituen bere sentimenduak onartzen, eta ez zen ausartzen ez bere familiarri ez inori beste emakume batekiko sentitzen zuen erakarpena adierazten. *Ezkutuan bizi eta esperimintatu* nahi zuen, baina zaila bilakatu zen hori, izan ere, jazarpen-egoera gogor bat jasan zuen institutuan zegoenean, bere mailako neska bat beretaz maitemindu baitzen, eta bere lesbianismoa jakitera ematearekin mehatxatzen baitzuen behin eta berriz. Lau hilabeteko infernua bizi izan zuen: *ezin nintzen lasai egon inoiz, edozein unetan nire amari lesbiana nintzela esango ziola uste bainuen*, edo elizan mikrofono bat hartu eta dena kontatuko zuela.

Gainera, Verónicak ez zuen bere haragitan bizi nahi pertsona homosexuali buruz telebistan ikusten zuena, horiek ezkutatut egin behar izaten baitzuten euren sexualitatea bizitzeko. Ez nuen ezkutuan bizi nahi eta nahiago nuen pentsatu: orain lo hartu eta biharamunean heterosexual esnatuko naiz. Beste LGBTI pertsona askok bezala, mutil-lagun bat *lortu* zuen heterosexual izaten saiatzeko, baina ez zuen funtzionatu. Honako hau hausnartzen du: *Ezin dugu sentitzen duguna aldatu beste pertsona batzuei atsegin egiteko*.

Halako batean, psikologoarengana joateko erabakia hartu zuen unea iritsi zen, eta ondo joan zen esperientzia hura, terapiari esker bere burua onartzen hasi baitzen, eta inguru-neak berak nahi zuen bezala onartu zezan lortzeko abiapuntua hori zela ulertzen hasi baitzen. Lesbiana gehiago ezagutu zituen, konfiantza izan zuen haiengan eta gaur egun ondo

Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara:
Kolonbiako eta Euskadiko historiak uztartzen.

sentitzen da eta Lorenaz⁸ maiteminduta dago; hark zentzua eman dio bere bizitzari, gauza asko aldatzen lagundu dio eta harekin bizi da duela bi urtetatik.

Bere neba etxetik joan izanak eta haren heriotzak eragin handia dute Verónicaren eta bere amaren arteko harremanean, bientzat gertakari traumatiko bat izan baitzen eta makina bat liskar pizten baititu bien artean, elkarri min egiten amaitzen duten horietakoak. Garai hartan Verónicak ihes egiteko pentsamendu asko izan zituen, bere nebak bezalaxe, *bere desirengatik inork epaituko ez zuen* leku baten bila.

Bere bizitzan zehar ahozko indarkeria dezente jasan duela kontatzen du: bere amaren eta orokorrean bere familiaren aldetik, unibertsitateko ikaskideen aldetik... Oraindik ere burura datozkio eskolako irainak: *ene, a zer mari-gizona! Zer nolako mari-mutila!* Eta zera dio: *gogorra zaren arren, eragin egiten dizu.*

Inguru horietako beste lesbiana batzuei gertatzen zaien eran, Santander de Quilichaoko gay munduan parte hartzea zaila eta deserosoa izan da Verónica eta Lorenarentzat, herri txiki bat baita eta egiten duten mugimendu bakoitzeko jendea asaldatu eta marmarka hasten baita. Aurrerapauso txiki bat gertatu dela uste du, *orain jada toleratzen dute, nolabait esatearren. Toleratzen dute, baina errespetatu ez.*

Verónicak maite du bere herria, eta izugarri gustatuko litzaioke Lorenarekin Santanderreko kaleetan barrena ibiltzea, edo

⁸ Haren bizitza-historia Verónicaren historiaren ondoren agertzen da, batera elkarriketatuak izan baitziren.

edozein bikote heterosexualen eran, espazio sozial guztietan Lorena bere neska-lagun gisa aurkeztu ahal izatea. Ikusgarri bihurtzeak sortzen dion beldurraren —uste baitu jendea oraindik ez dagoela kontzientziatuta, eta haien erreakzioen beldur da—, eta ikusezin izanez bizitzearen zailtasunaren arteko kontraesana bizi du. Ez du jasaten Lorenari muxu emateko etxean ezkutatu dadila esaten diotenean, ezta bere amak esaten diona ere: *izan zaitetz gay hemen, baina kalean izan zaitetz normala.*

Borroka da behin eta berriz erabiltzen duen hitza adierazteko munduari erakutsi nahi diola LGTBI+ pertsonak ez direla deskribatzen eta ikusten gaituzten bezalakoak, eta zera dio, pertsona amoral eta biziotsu gisa ikusten dituztela, eta ez bere kasuan bezala, saiatzea eta ikastea gustuko duten pertsona gisa, eta aitortzen du ahaleginak egiten ari dela unibertsitate-ikasketak amaitzeko.

Borroka horrek Funquidiversas LGTBI+ erakundearen parte hartzeraren eraman zuen, baina irten egin zen gero, *inbidia, satirak eta liskarrak* ikusten zituelako bertan, eta hori ez zitzaiolako gustatu. Oso kritikoa da euren artean eta komunitatearen barruan gertatzen diren jokabide bortitzekiko. Uste du gizarteak onartu ditzan LGTBI+ pertsonak *modu egokian komunikatu behar dutela, eta ez kalean zalaparta sortuz.* Verónicak gizartearen sentsibilizatzeko trebatzeari eta ikasteari buruz hitz egiten du bere lagunekin, desira guztiak errespetatuak izan daitezkeen eta pertsona bakoitza berak izan nahi duen horren eran onartua izan dadin. *Nik uste dut gizateriari hori falta zaiola: gure gauza asko onartzea eta gizakiok gauza askotan zeharo desberdinak garela ikustea. Izan ere, antzekoak gara gorputzari eta gauzei dagokienez, baina desberdinak gara.*

LORENA

**“Nork ez du nahi homofobiarik ez egotea?
Oso ederra litzateke hori”.**

Lorenak 26 urte dauzka, eta Santander de Quilichaon jaiotza eta bizi da. Bederatzi anai-arreben artean gazteena da, eta bere familia oso kontserbadorea eta molde zaharrekoa dela dio. Erizaintza ikasi zuen, baina ez du erizain gisara lan egiten, ikasketak burutu zituen institutuak ez baitzeukan Hezkuntza Ministerioaren bermea. Ikasketei berriro ekin die, oraingo honetan Hezkuntza Ministerioak onartutako zentro batean, eta bere ametsa gerontologoa izatea da.

Bere haurtzaroa oso *normala* izan zen. Oroitzen du haur bat zenean ez zituela gustuak, erakarpenak eta joerak bereizten, baina heldua den honetan jabetzen da bere lehengusina batez maiteminduta egon zela beti. “18 urterekin mutil-laguna izan behar duzu, lehenago ez” goiburuekin hezi zuten. Bere familian zaindu egiten zuten eta ez zioten irteten uzten, eta garai nahiko zaila pasa zuen arren, gaur egun eskertu egiten du, horrek bere izaera eraiki duelako eta pertsona zentzuduna izaten lagundu diolako.

Lorenak beti egin zuen bere familiak esaten ziona, eta 18 urte zituenean *mutil-lagun bat lortu zuen*. Harreman *polit* bat izan zen, denbora dezente iraun zuena. Mutil horrekin amaitzean, bere sexu bereko pertsonetikiko desira pizten hasi zitzaion.

Oso une nahasia izan zen berarentzat, ez baitzeukan oinarririk edota behar adina tresnarik, eta bere buruari galdetzen zion; *hau sexualitatea al da? Zer da hau?* Besterik gabe, neska batek emakumeak gustatzen zitzaizkiola ohartarazi ziola dio.

Bere familian *beste aho batzuetatik jakin zuten, ez berak esanda*. Bere familiaren aurrean ikusgarri jarri zen unea oso une gogorra izan zela dio, tratu txarrak jaso baitzituen, bai psikologikoak bai fisikoak. *Oso gogorra izan zen ikustea zure neba batek, zure odol bera duenak, lesbiana, malparida, perra hijueputa, china oihu egiten dizula zure gurasoen eta zure ilobaren aurrean*. Bere nebaren indarkeria Lorenarekiko handitu egin zen lesbiana zela jakin zuenean.

Indarkeriaren ondorioz, Lorena oso goiz joan zen etxetik, bere aitaren aldetik ere indarkeria jasan baitzuen. Poltsa eta kirol-jertse batekin irten zen bere etxetik eta Calira joan zen. Han, sei hilabetez bizi izan zen bere ahizparen etxean. Egun batean, bere familiaren etxera itzuli zen, *inoiz ez baitzuen atzeko atetik joan nahi izan, ezta bere gurasoekin haserretuta ere*, eta bere familiaren ahotik entzun nahi baitzuen bertan etxe bat zeukala, nahi zuenean itzul zedin.

Internet-gela batean lan egiten zuenean eta Facebook-etik emakume baten lagun izateko eskaera jaso zuenean jabetu zen Lorena neskek gustatzen zitzaizkiola. Harekin hitz egiten eta hura limurtzen hasi zen. Hark bueltan limurtzen zuela ohartu zen. Orduan, bere buruari galdera asko egiten hasi zen: *zer gertatu da? Zergatik?*

Une hartan ez zen harekin irteten hasi, baina muxu eman

Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara:
Kolonbiako eta Euskadiko historiak uztartzen.

zion lehenengo emakumea izan zen, eta hasieran oso arraro sentitu zen. Horrek gertatu beharra zuela uste du, bera *iratzartzeko*, horren aurretik ez baitzuen aukerarik izan *nik hau nahi dut* esateko. Dena den, garaia heldu zen, gustatu egin zitzaion, eta orduan harremanak izaten hasi zen. Dantzan ari zela emakume bat ezagutu zuen, eta harekin izan zuen bere lehenengo esperientzia sexuala. Bera baino emakume zaharagoa zen, eta asko gozitzen zuen. Harekin gauza asko ikasi zituen, besteak beste, ordura arte ezagutzen ez zuen gay mundua ezagutu zuen.

Duela bi urtetatik Verónicarekin bizi da. *Bere burua lesbiana gisa onartu zuenean* emakume independentea zen ekonomikoki, eta horrek asko erraztu zituen gauzak. Bere familiak badu horren berri, baina ez dute gaiari buruz hitz egiten, nahiz eta bera errespetatua sentitzen den. Bere bikotearekiko ez dute halako errespeturik, eta horrek deseroso sentiarazten du, baina uste du ezin diola eskatu bere familiari hura maite eta onartu dezatela. Lorenarentzat bere harremana garrantzitsua da, bere buruarekin eta bere amarekin ondo egon nahi du, *nire ama nire begietako argia da. Oso harreman polita dauka-gu, berak akatsak egin dituen arren, eta nik akatsak egin ditudan arren*. Pozik dago, eta zergatik ez badaki ere, bere amarekin duen harremana asko hobetu da.

Lorenak eta Verónicak ez dute gogoko gay pertsonekin espazio publikoak partekatzea, adibidez, Santander de Quilichaoko parkeak. Oso pertsona zuhurtzat dute euren burua, eta kontu handiz jokatzeko dute, besteak beste, kanpoko pertsonak ez ditzaten gay pertsonen artean bere herrian gertatzen diren *show eta labana eta botilekin egiten dituzten borroken*

barruan sartzerik nahi. Badakite orokortzea eta aurreiritzia kolektibo osoak jasaten duela: Santander ez da aldatuko gaurtik biharra, eta horrekin bizitzen ikasi behar dute.

Lesbiana gisa bere herrian duen etorkizuna mahai gainean jartzen duenean, ideia orokor bat datorkio: *armairutik irteteko aukera, baina era berean inkongruentea iruditzen zaio, bere izaera dela eta ez zaiolako interesatzen bere bikotekideari eskua emanda ibiltzeak ematen dion ikusgarritasuna, ez du kalera irten eta bere burua erakusteko beharrik ikusten. Nahikoa zaio zer den eta zer duen jakitea. Uste du beharrezkoa dela borrokan jarraitzea errespetu handiagoa egon dadin eta uste du etxetik hasi behar dela. Nork ez du nahi homofobiarik ez egotea? Oso ederra litzateke hori.*

MAYRA

“Inguruarekin bat ez nentorrela eta ihes egin beharra neukala pentsatuz hazi nintzen, baina behar nuena ez zen inguruarekin bat etortzea, ni neu izateko espazio bat baizik”.

Mayrak 26 urte dauzka, Puerto Tejadakoa da (Cauca) eta gizarte-komunikazioa eta kazetaritza ikasten ari da. Une honetan bere amarekin eta bere bikotekidearekin bizi da, bere burua emakume afro-lesbiana gisa deskribatzen du, eta Arcos Diversos Fundazioko kidea da.

Mayrak oso haurtzaro zoriontsua izan zuen. Hiru urte zituela, aita amarengandik banandu zen, baina hala ere aitak egunero ikusten zuen Mayra, ikastetxe erlijioso onenetariko batera eramaten baitzuen. Oro har, bere familia oso katolikoa da eta hark Jainkoari men egiten eta beldur izaten irakatsi zion. Bere aita berarekin ez zela horren zorrotza azpimarratzen du, eta bere izeba batek bere amak baino gauza gehiago onartzen zizkiola, bere amak igandero elizara joatea eta batere gustuko ez zituen soineko luze batzuk janztera derrigortzen baitzuen.

Ikastetxean modu eredugarrian jokatzeko zuten. Ikastetxean ikasle afroak gutxi ziren eta, beraz, bere jokabideak eta janzkerak perfektuak izan behar zuten: *eserita egoten nintzen, hankak gurutzatuta, gona mugitu ez zedin eta ezer ikusi ez zedin, ilea oso neurritsu, apain; ile naturala afro eran erakustea oso zaila*

zen. Ikastetxean Jazmín⁹ ezagutu zuen, bere egungo bikotea, eta ez zen harengana hurbildu ere egiten: *ez zitzaidan ondo erortzen hark ez zituelako arauak jarraitzen, baina errealitatean jeloskor* nengoen. Garai hartan inpotentzia sentitzen zuen, gizonak pribilegio asko zituztela ikusten baitzuen, eta berak egin nahi lituzkeen gauzak egiten baitzituzten.

Aitarenekin babesleku bat izan zen Mayrarentzat, han pilotak eta trenak baitzeuzkan, eta bere lehengusuekin jolastu baitzitekeen, mari-mutil bat zirudiela entzun beharrik gabe. Hori ezin zuen egin bere amarekin. Horrela bizi izan zen hamabi edo hamahiru urte bete zituen arte. Nerabezarori dagokionez, zera oroitzen du, Jazmín ikastetxetik bota zutela bere izaerarengatik, eta ikastetxea aztoratu eta zatitu egin zela, haren jarrera defendatzen zutenen eta haren jarrera lotsagabea zela ziotenen artean.

Hamahiru urte zituenean, mutil-laguna ote zuen galdetzen hasi zitzaion aita, eta Mayrak honako hau esan zion: *aita-txo, zer gertatzen da ez bazaizkit gizonak gustatzen?* Aitak zera erantzun zion: *orduan, emakumeak gustatzen zaizkizu?* Sentitzen zuenari izena jartzen ere ez zekien arren, baietz uste zuela baina ez zegoela ziur erantzun zion. Aitak esan zion hori bien arteko sekretu bat izango zela.

Aitarekin eta izebarekin bizi zuen giro horrek lasaitasun handia ematen zion, oso erlijiosoak izan arren liberalak eta tolerantak baitziren. Bere izebaren bidez, homosexualtzat jot-

⁹ Jarraian, Jazmínen bizitza-historia dator, batera elkarrizketatuak izan baitziren.

Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara:
Kolonbiako eta Euskadiko historiak uztartzen.

zen ziren idazleen biografiak irakurri zituen, adibidez, Allan Poe edota Arthur Conan Doyleenak. Hala, Mayra bere lesbianoaz eta zeraman bitzta bikoitzaz jabetu zen.

Mayraren aita berak 15 urte zituenean hil zen, eta inguruabar horrek depresio batera eraman zuen. Babesleku hori galdu izanak, hutsune handi bat sentiarazi zion. Bere amarekin denbora gehiago pasa beharrak egoera zaildu zuen, neskaren bizitzako urte askotan urrun egon zen pertsona bat baitzen. Ez zitzaion erraza egin harekin berriz harreman bat eraikitzea.

Unibertsitatean, ordura arte bizitzako egoeraren aldean, mundu zeharo desberdin bat topatu zuen; askatasun eta lagun gehiago izan zuen han, horien artean haurtzaroko lagun bat, lesbiana zena. Bere burua ikusgarri jartzen eta gay komunitatean ibiltzen hasi zen, baina horrek gatazka bat sortu zuen bere familian, amarentzat lotsaizuna bihurtu baitzen, eta beste leku batera bidali zuen gay girotik urrundu zedin. Horrek oso zoritxarreko sentiarazi zuen, eta depresio batean erori zen. Mayraren izebak amaren etxera eraman zuen neska, eta haren amari garbi utzi zion ez zuela bidegabeko trataturik onartuko. Amarekin zuen harremanak hobera egin arren, *kon-denatuta dago eta Jainkoarekiko beldurra galdu du* pentsatzen jarraitzen zuen bere amak.

Bere izebaren onarpenari esker, Mayra zen bezalakoa izaten eta gogoko zuen eran janzten hasi zen. Familia-harremanak hobetzen joan ziren, eta onartu egin zuten. Zera ulertu zuen une hartan, *familiak onartzen duenean gizarteak ez duela baztertzen*.

Mayra Arcos Diversos Fundazioko kidea da, eta erreferente bilakatu zen sare sozialetan armairutik irteten hasiak ziren neska eta mutilentzat; mezuak jaso ohi zituen laguntza eske. Egoera horren ondorioz jabetu ziren Mayra eta Jazmín zerbait egin beharra zutela. 2014an, antolatzea eta eurek jasaten zuten egoera eta indarkeria udalerrian ikusgarri agertzeko moduren bat bilatzea erabaki zuten. Jende asko euren lanaren aurka dago, baina udalerrian LGTBI biztanleekiko duten ikuspegia aldatu egin dela uste du, eta eurek ekarpen bat egin ahal izan dutela: *gutako askok herritik joan behar izan zuten, eta orain itzuli egin dira gauzak aldatu egin direla ikusi dutelako.*

Bidean lagun asko ere galdu zituzten, *depresioarengatik drogetan erori zirenak, konpainia txarra aurkitu zutenak, hemendik joan zirenak eta haien berri izan ez dugunak, beren etxetatik ihes egin zuten eta besterik gabe ez genuen ezer gehiago jakin.* Gaizkile-taldeak eta paramilitarrak indarkeria- eta ziurgabetasun-egoera horretaz baliatzen dira, etxetik botatzen dituzten haur gayak *saltzaille eta kontsumitzaille perfektuak* direla uste baitute.

Nola bakarrik hala batera doazenean, Mayra eta Jazmínek irainak jaso ohi dituzte, eta indarkeria-egoerak jasaten dituzte kalean. Beren burua zaintzen saiatzen dira; beti norbaitek nora doazen jakin dezan saiatzen dira, eta bakarrik daudeneko espazioak saihesten dituzte. Egoera bortitz horiek beldur gehiago sortzen zioten Mayrari lehen, zaurgarriagoa sentitzen baitzen, baina orain horiei aurre egiteko gaitasun handiagoa duela sentitzen du. Badaki ez dagoela bakarrik, bere egoeraren antzekoak bizi dituzten beste erakunde, pertsona eta leku batzuk ezagutzen baititu, eta horrek indarra ematen dio. Inguruarekin bat ez zetorrela eta ihes egin beharra zeuka-

Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara:
Kolonbiako eta Euskadiko historiak uztartzen.

la pentsatuz hazi zen, baina behar zuena ez zen inguruarekin bat etortzea, bera izateko espazio bat baizik. Gazteekin lan egiten duenean, hori da helarazi nahi diena.

Gatazka armatuaren esparruan, Mayrak 16 urte zituenean (2009-2010), LGTBI pertsonak jazarriak izan ziren Puerto Tejadan: *beldur handia izan genuen, garai hartan paramilitarrak herrian zeuden eta*. Garbiketa sozialaren panfletoak izan ohi ziren, *droga-saltzaile, hippy eta gay guztiak deuseztatu behar ditugu* ziotenak. Panfleto horiek LGTBI pertsonak elkartzen ziren parke zentrala aipatzen zuten eta, horrenbestez, han elkartzeari utzi zioten. Bera nerabea zen, eta garai hura tentsio handiko garai gisa deskribatzen du. Euren lagun transek kezkatzen zituzten gehien, *haietako bat bortxatu zutela entzuten genien, edota soldaduek haietako beste bat jipoitu zutela*. Zera esaten zieten: *ea, jokatu gizonezkoek bezala! Gu ez gintuzten ukitzen, jakina, baina haiek bai, eta gu txundituta geratzen ginen, ez baikenekien zer egin, denak korrika irteten ziren, denek ihes egiten zuten, eta haiek han geratzen ziren*. Garai hartan, Mayrak eta bere lagunak legezkotzat jotzen zuten paramilitarrek egiten zuten guztia, baina aurrerago jabetu ziren hura indarkeria zela.

JAZMÍN

“Begira, hor doazen horiek lesbianak dira!”

Jazmínek 25 urte dauzka, Puerto Tejadakoa da, eta sistemen teknologoa da. Arcos Diversos Fundazioko kidea eta haren lehendakariordea da. Une honetan Mayrarekin eta bere amaginarrebarekin bizi da. Txikitatik jabetu zen emakumeekiko nolabaiteko interesa zuela.

Ikastetxean mutilekin futbolearen aritzea, zuhaitzetara igo-tzea eta borrokatzea gustatzen zitzaion. *Nik .bahá’i¹⁰ ikasten nuen, eta beti bullying egin ohi zidaten. Dantza-klaseetan inork ez zuen berekin dantza egin nahi izaten, eurak bezala gizon bat nirudiela esaten zutelako. Une horietan triste sentitzen zen, eta egun askotan ez zuen eskolara joan nahi izaten. Eskolako atetik sartzean, andereñoak honako hau esaten zuten: hor dator Jazmín. Begiratu iezaiozue, begiratu! Gizon bat dirudi, mari-mutil bat! Ikusi! Ez da orrazten gainerako neskek bezala, ez da neskekin ibiltzen.*

Etxean errietak eta tratu txarrak jasotzen zituen amaren aldetik, zeinak etengabe esaten baitzion telenobelak ikusi eta era horretako gauzak egin behar zituela. Aldiz, aitak bere futbola ikusteko zaletasuna defendatzen zuen, eta uste zuen edozein unetan makillajea gustatzen hasiko zitzaiola eta gauza mota hori

¹⁰ . Bahá’i erlijio persiar bat da, Bahá’u’lláh-n sinesten duena.

Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara:
Kolonbiako eta Euskadiko historiak uztartzen.

egiten hasiko zela. Inoiz ez zuen gogoko izan bere gorputza erakustea eta, beraz, galtza motzak, kirol-jertseak eta alkan-dora handiak janzten zituen; emakume bizilagunek ez zuten ondo ikusten hori, eta haren amari esaten zioten alabari gonak jartzeko: *Nire amak denbora guztian egiten zidan errieta, eta galdetzen zidan ea zergatik jokatzen nuen horrela eta ea zergatik ez nintzen gainerako neskak bezalakoa.* Jazmínek inoiz ez zuen interesik izan bere lagunek egiten zituzten gauzekiko: bekainak depilatzea, margotzea, festak...

Bahá'í erlijioiko ikastetxearen ondoren, non urte bat galdu zuen andereñoek ez zutelako bere izaera jasaten, ikastetxe adbentista (kristau) batera pasa zen. Belarritakorik gabe joan behar zuen, eta gona izugarri luze bat jantzi. Irakasleek erreferentzia kaskarrak zituzten berari buruz, mutilekin futbolean jokatzen baitzuen. Emakumeak gustatzen ote zitzaizkion galdetzen zioten, eta ezetz erantzuten zuen berak, batxilergoa amaitu eta bere ama pozik uzteko asmoz; besterik gabe kirola gustatzen zitzaiola, eta gizonak kirola egiten zuten bezaraz ere hori egiten zuela eta kito. Ikastetxe hartan, Melissaren lagun egin zen; hura ere emakumeak gustatzen zitzaizkion neska bat zen. Melissa ikastetxetik bota zuten psikologoaren gomendioz, neskak idazmahaietan LGTBI banderak eta beste ikur batzuk marrazten zituela jabetu zen psikologoa eta.

Eskolako ikasketak amaitu, eta nota onekin graduatu zen Jazmín. Ikastetxe adbentistatik irten ondoren, bere irakasle ohiek emakumeak gustatzen zaizkiola jakin dute, eta elikadura osasuntsuarekin lotutako proiektu bat ikastetxeari aurkezteko aukera ere izan du. Bera gaizki sentiarazten saiatuko zirela uste zuen, baina ez zen hala izan, ondo jaso zuten.

19 urteetatik aurrera, emakume lesbianen eta gizon gayen lagun egin zen, eta haiek elkartzen ziren parkera joaten hasi zen. Puerto Tejada denek elkar ezagutzen duten udalerrri bat da, eta bizilagunek bere amari neskak parkera egiten zituen joan-etorrien berri ematen zioten. Amak modu txarrean aurpegiatzen zion hori: *parkean nazkagarri horiekin, maritxu, lesbiana, travesti, txerri horiekin egoten zara*. Horrek oso gaizki sentiarazten zuen Jazmín, haiek *persona onak zirela* bazekielako. Amarekin zituen liskarrak etengabekoak ziren.

Jazmín eta Mayra ikastetxetik ezagutzen dira; han ez ziren elkarrengana hurbiltzen ausartzen ere. Parkeko gayekin egoten hasi ondoren, Jazmín Mayraz oroitu zen, eskolako garaian gustuko zuen, eta Facebook bidez idatzi zion. Denbora batean erantzunik jaso gabe egon eta gero, egun batean erantzun egin zion, eta hitz egiten eta elkar ezagutzen hasi ziren, parkean topatu eta bere etxera gonbidatu zuen arte. Orduan hasi zen euren harremana. Han *formalizatu* zuten, neskalagun egin ziren, eta zazpi urte daramatzate batera.

Puerto Tejadako kaleetan paseatzen dutenean esamesak entzun eta mespretxuzko begiradak jaso ohi dituzte: *Begira! Hau mari-mutila da, begira! Hor doazen horiek lesbianak dira. Zer nazka! Uste duzu nire alabari horrekin ibiltzen utziko diodala?* Halako indarkeria jaso arren, lagun heterosexualek mota guztietako aholkuak eskatzen dizkietela nabarmentzen dute: *eta zuek nola egin duzue horrenbeste denbora irauteko?* Euren bizikidetzari buruz, eta etxeko lanen banaketari buruz ere galdetzen diete.

Jazmínek, Mayrak eta beste bi lagunek Arcos Diversos Funda-

Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara:
Kolonbiako eta Euskadiko historiak uztartzen.

zioa sortu zuten elkarrekin, eta ikusgarri bihurtzen hasi ziren. Beste erakunde batzuekin batera elkarlanean jardun izanak indartu egin du, eta fundazio hori sortu dutenetik LGBTI herritarren borrokak formalagoa dirudiela dio. Argizariak piztuz emakumeen aurkako indarkeriaren eguna ospatzen dute, eta Jazmínen ama eta haren lagunak ere bertaratzea lortu dute, eta hark onartzea: *hori bada Mayra eta Jazmín egiten ari direna, fundazioaren bidez, orduan babestu egin behar ditugu.*

CRISTINA

*“Familia guztiaren aurrean esan zuen.
Cristinari neskak gustatzen zaizkio
eta neska-laguna dauka”.*

Cristinak 29 urte dauzka, Zarauzkoa da eta gaur egun Bilbon bizi da lan-kontuengatik eta erbestealdi pertsonalarengatik. Madrilen jaio zen, baina handik gutxira bere familia, jatorri extremadurarra duena, EAera lekualdatu zen lana zela eta, hainbat eta hainbat familia extremadurarek egin zuten eran. Gizarte-lana ikasi zuen eta emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko master bat egin zuen ondoren. Gaur egun, gizartea eraldatzeko lankidetzeta eta hezkuntza-proiektu batzuetan lan egiten du. Oso gogoko du dantza egitea, paseatzea eta askotariko gauzak egitea: besteak beste, artea, musika edota kultura ezagutzea.

17 edo 18 urterekin jabetu zen emakumeekiko sentitzen zuen erakarpenaz. Adin horrekin identifikatu zuen lehenengo aldiz emakumeak gustatzen zitzaizkiola, baina desira horiek, nolabait, txikitatik zeuzkan. “Shenna la guerrera” ikusten zuenean, hipnotizatuta geratzen zen seriean agertzen zen emakumearekin; ez dakit erakarpen sexuala zen edo ez, baina Shenna izugarri gustatzen zitzaion eta erreferente bat zen berarentzat. Panpinekin jolasten zuenean, ez zuen bata mutila eta bestea neska zela irudikatzen, berarentzat biak neskak ziren eta elkarri muxu ematen zioten. Kontzientzia hartzea

Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara:
Kolonbiako eta Euskadiko historiak uztartzen.

prozesu bat izan zen, pertsonak gustatzen zitzaizkiola onartzen hasi zen eta gero *emakumeak gustatzen zaizkit* esatea lortu zuen.

Asko kostatu zitzaion emakumeak gustatzen zitzaizkiola onartzea: hori hitzez adierazteko gai izateko 2 urte baino gehiago behar izan zituen, eta hori lagun *bollera* bat izan eta hark bidea ireki zion arren, baina halere asko kostatu zitzaion. Nerabezaroan, gauza desberdinen bat zeukala nabaritzen zuen. Cristinak eta bere lagun *bollera* denbora asko pasatzen zuten elkarrekin, eta lagun hark ondo identifikatzen zuen beste emakume bat gustatzen zitzaioela, baina Cristinak ez, eta ez zen esatera ausartzen. Beldur handia ematen zion besteek pentsatu zezaketen horrek eta, batez ere, beldur zen bere aitona horren berri izan eta ez onartzeaz.

18 urterekin, batxilergoa amaitzen ari zela, bere lagun guztiekin festa egiten ari zen gau batean neskak gustatzen zitzaizkiola esan zuen, *gauza intimoak esaten hasten zarenean bota nuen, eta biharamunean lagunek zer aitortu zuen esan zioten eta berak ezetz, ez zuen onartzen; armairutik irten eta berriz armairura itzultzearen parekoa izan zen, egun batean lagunei esan nien arte, pertsona hau gustatzen zait, neska hau. 2 edo 3 urte behar izan zituen armairutik irteteko.*

Cristina neska batekin harremanak izaten hasi zen, baina txandakatzen zihoan, neskekin liatzen zen eta gero mutilekin: *Nik egiten nuena pertsonekin liatzea zen. Ez nintzen gai ikusteko horrek zer ondorio izan zitzakeen eguneroko bizitzan. Bazekien taberna batean neska batekin liatuz gero jendeak begiratu egiten zuela, berari buruz hitz egiten zuela, baina*

horrek ez zion axola, eta horretaz jabetzen zen. *Ez nekiena zen zer ondorio dituen kaletik zure neska-lagunarekin eskutik helduta joateak, hau da, mundu guztiak jakiteak. Gauza horiek geroago etorri ziren, denborak aurrera egin ahala, beste neska bat ezagutu nuenean, berarekin ateratzen hasi eta guztiaz jabetu nintzenean.*

Ezagutzen ari zen neskaren etxera joaten zen lotara, baina astean bitan hori egitea asko zeneko unea heldu zen, eta zerbait gertatzen zela ikusten zen. Egun batean, zera esan zion amak familia guztiaren aurrean: *zuri neskak gustatzen zaizkizu, eta neska-laguna daukazu.* Horrek estutasun izugarria sortu zion. Amak atera zuen *armairutik*. Beste familia askotan gertatzen den bezalaxe, inork ez zuen gai horri buruz hitz egiten jarraitu nahi izan, berak ere ez, eta hala, gai hori bere horretan geratu zen 7 urtez, 26 urterekin neska-laguna etxera eraman zuen arte.

Bere burua *bollera* gisa ikusten du, identitate politiko gisa, eta zerbait aldarrikatu behar badu, emakume feminista eta *bollera* gisa aldarrikatzen du bere burua. “Etiketa” horrekin irteten da kalera eta, zerbaiti buruz hitz egin behar badu, *bollera* gisa duen bere esperientziatik hitz egiten du. Oso ondo daki bere desirak aldakorrak direla, izan ere, bere bizitzako une batzuetan ez du inolako desirarik sentitu gizonetik eta, aldiz, beste garai batzuetan erakarpen gehiago sentitu du haiekiko.

Uste du espazio batzuetan errazagoa dela *bollera* gisa definitzea bisexual gisa definitzea baino. Orain, gizonekin harremanak dituenean, eta bere lagunei aipatzen dizkienean, lagunek esan diotena, txantxetan ari arren, ez da atsegina izan. Zera esan izan diote: *jada zuk ere ez dakizu zer zaren, engainatuta*

Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara:
Kolonbiako eta Euskadiko historiak uztartzen.

eduki gaituzu orain arte. Soilik neskekin egon izan balitz, inork ez lioke ezer esango. Eta orain, nola definitzen duzu zure burua? ere galdetu diote inoiz.

Gure gizartean behar handia dago sexu-definizioa ondo finkatuta edukitzeko. Alde batean egon eta beste aldera joatea onartzen da, baina “hor geratu”, ez zaituzte alde batetik bestera mugitzen hasi. Horregatik dio politikoki *bollera* dela, bikotekide batekin urte askotan *bollera* gisa bizi izan baita, eta ondo baitaiki horrek zer esan nahi duen.

Etiketei eta ikusgarritasunari dagokienez, bere herriaren pareko leku batean, Zarautzen, herri handi bat baina aldi berean herri txiki bat dena, *bollera* denek ezagutzen dituztela dio, eta bere herrian bera eta bere hiru lagunak direla. *Batzuetan kolektiboaren ikusezintasunaz hitz egiten da, baina herri txiki batean zaudenean guztiz kontrakoa da, erabat sailkatuta zauzkate.*

Ikusezintasuna Bilbon bizi duela dio, gaur egun bere bizitokia den horretan, askoz errazagoa baita ez nabarmentzea eta jendeak gutxiago begiratzen baitzaitu. Bilbon espazioak handiagoak dira eta, kasu honetan, askoz gehiago kostatzen zaio lesbiana nor izan daitekeen eta nor ez identifikatzea, agian ez delako Zarautzen dauzkan *espazio horiek* betetzera heldu.

Bere herrian lesbiana izatearena integratu gabe dagoela uste du, *ez dira ikusten bi neska elkarren artean musukatzen, neska bat eta mutil bat lasai ikusten dira, ordea, elkarren artean liatzen.* Jende gaztea dabilen espazio publikoetan ez da halakorik ikusten. Indarkeria fisikorik jasan ez arren, irainak esan dizkiotela aitortzen du. Emakume heldu bat salbu, ia ez da emakume

lesbiana erreferenterik ezagutzen Zarautzen. *Badira bollera heldu gehiago herrian, baina ez dute nahi jendeak jakiterik.* Hala eta guztiz ere, Cristinak zortea izan du, bidea ireki dioten emakumeak izan baititu inguruan, eta hori oso garrantzitsua da berarentzat.

Bereizkeria ezabatzeko, ezinbestekoa da antolatzea. Berak mugimendu feministan eta LGBTI mugimendu mistoan parte hartzen du. Batzuetan, gizonekin antolatzea gogorra dela sentitzen du. Ezagutzen dituelako egiten du, maite dituelako eta iruditzen zaiolako emakumeek bakarrik ez luketela lortuko aldatu beharreko guztia aldatzea.

Cristinak izan dituen erreferente lesbikoak mugimendu feministatik datoz: *Niri bizitza salbatu didate, eta dakit nola biziko nintzatekeen, ziurrenik nire armairu frustratuan jarraituko nuke, edo batek daki, baina izan liteke.*

Cristinaren nahia onarpenezko mundu batean bizitzea da, mundu bat non goitik behera eta interseksio guztietatik begiratuta eskutik doazen bi emakume ijito edo bi marixu migratzaile ikus daitezkeen, non denok ondo gauden eta gure adinaz haratago doan zerbait den.

Ikusgarritasun indibiduala gero kolektiboan islatzen dela aipatzen du, eta uste du ikusgarritasun publiko eta politiko bat beharrezkoa dela, hau da, erreferenteak izatea baina ez soilik eguneroko herriko bizitzan edota mugimendu sozialetan, baizik eta egiturazko ikusezintasuna etetea. Horretarako garbi dauka aldaketa garrantzitsu bat egon beharko dela, esate baterako, lege integralak behar dira, *bollerek jasaten dituzten*

Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara:
Kolonbiako eta Euskadiko historiak uztartzen.

*indarkeriak aterki feministaren eta genero-indarkerien barruan
daudela diotenak, eta horretarako feminista askok diskurtso bita-
rra aldatzen hasi behar dute.*

EIDER

“Oztopoa nirea da, besteena baino gehiago”

Eiderrek 33 urte dauzka, Gasteizen jaio eta bizi da, urte batzuk kanpoan eman zituen arren, kooperante gisa, Argentinan eta Panaman. Gainerako denboran Donostian, Gasteizen eta Bilbon bizi izan da. Psikologia ikasi zuen, eta nazioarteko lankidetzeta eta berdintasunaren eragileak maste-rra ere burutu zuen. Gasteizko aholkularitza batean lan egi-ten du, berdintasunaren alorrean, eta bere bizitza gazteleraz eta tarteka euskaraz bizi du.

Maila guztietan oso tradizionala den familia batekoa da, bai familiaren egiturari bai balioei dagokienez. Gasteiztik kanpo bizi zenean, giro tradizional horretatik irteteko aukera izan zuen. Ez da kasualitatea emakumeekin izan zituen bere lehenengo esperientziak Panaman gertatu izana, bere familia-rengandik urrun, non espazioak sortzeko eta beste harreman mota bat izateko aukera izan zuen. Urruneko leku berri batek beste aukera batzuetara zabaltzea ahalbidetu zion. Ez zen emakume batekiko sexu-erakarpina sentitzen zuen lehenengo aldia, baina gauza egingarri gisa ikusi zuen lehenengo aldia izan zen. Esperientzia horren ondoren, atzera begira-tzean, desira sexuala piztu izan ziezaioketen beste emakume batzuk identifikatzen ditu, baina Panaman izan zen desira hori modu kontzientean gauzatu zuen lehenengo aldia.

Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara:
Kolonbiako eta Euskadiko historiak uztartzen.

Panaman emakume lesbianak egoten diren berdintasun-espazioak ezagutu zituen. Lehenengo aldia zen, Euskadin ez baitzuen emakume lesbianeaz inguratzeko aukerarik izan. 23 urte zeuzkan eta ordura arte ez zitzaizkion aukera asko agertu: *agian ez nuelako aukera bera mahai gainean jarri ere egin, planteatu izan banu agian gertatu izan zitekeen, baina ez zen gertatu.*

Emakumeekiko bere sexualitatea urduritasun handiz bizi zuela oroitzen du, konfiantza zeukan lagunekin asko hitz egin zuen horri buruz, baina asko kosta zitzaion emakumeekiko erakarpen hori onartzea. Garbi zegoen erakarpen sexual bat zegoela, baina asko kosta zitzaion pausoa ematea. SozIALIZAZIOAREN ERAIKUNTZA eta prozesu osoak zalantza asko sortu zizkiola dio, hori desira sexuala ote zen edo oker ote zegoen jakiterakoan. Gizonekin ez zaio gertatu, baina konfiantza handiko lagun batekin egon zen, asko hitz egin zuen eta zalantzak argitu zituen ezer gertatu aurretik, eta gero oso ondo atera zitzaion.

Lehenengo esperientzia horretatik abiatuta, hau guztia irekitasun askoz handiagorekin bizi izan du, baita Gasteiza itzultzenean ere. Orain, desira sexuala pizten dioten emakumeak daudenean, badaki ez dagoela bidearen hasieran. Dena den, ibilbide bat egina duen arren, neskekin ligatzen duenean gizonekin ligatzen duenean baino askoz oztopo gehiago izaten jarraitzen duela sentitzen du, errefusarekiko beldurra desberdina baita. Errefusak beldur handiagoa ematen dio emakume batengandik datorrenean: *ligatzen saiatzen ari den emakumeak eta, era berean, inguruan daudenek epaitua izatea.*

Benetako beldur bat dauka, eta oztopo bat bere buruareki-

ko, nahiz eta badakien Euskadi ez dela indarkeria fisiko edota ahozko indarkeria handia dagoen leku bat baina begiradak hor daude, eta hori ez zaio gertatzen mutil batekin liatzen denean. Emakume batekin tonteatzen edo ligatzen ari denean, jendea biratu eta zurrumurrutan hasten dela ikusten du, eta horregatik adiago egoten da.

Komentario barregarriak jasan izan ditu, adibidez, *hori bizioa da, ez dut ulertzen nola izan ditzakezun gustuko biak, nazka ematen dit...* Ulertzen ez duen jendea edo barregarriak ez diren txantxa barregarriak egin nahi dituen jendea da, baina inoiz ez da eztabaidetan gehiegi sartzen. Bakoitzak pentsa dezala nahi duena, horixe da bere iritzia. Uste du epaitzen dena emakume batek bere sexualitatea modu askean bizitzea dela.

Bere sexu-orientazioaren berri galdetzen diotenean, beti heterosexuala dela dio, eta hori arrazoi ugarirengatik egiten duela uste du: alde batetik, bere erakuntza hetero gisa egin zuelako eta harreman bisexualak izan dituelako, eta desira bisexuala duen pertsona gisa ikusten duelako bere burua baina ez duelako hori esan nahi; bestetik, bisexuala izatea ez delako ulertzen sozialki eta ez duelako maiz *ni ere bai* erantzuna jasotzen. Bisexualitatea oso ikusezina da, bollera identitateak espazioa daukala uste du, baina esperientzia bisexualek ez dutela erreferentziazko espaziorik edo pertsonarik.

Hilabete batzuetan ALDARTEn lana egin izanaren harira, eskubideen aldeko borrokan parte hartu izan du, eta ildo beretik, sexu-askatasunaren eta LGTBI-en eskubideen alde diharduten erakunde batzuk ezagutu zituen. Gaur egun, berdintasun teknikari gisa lan egiten du eta badaki berdintasun plan guz-

Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara:
Kolonbiako eta Euskadiko historiak uztartzen.

tiek LGTB ardatz bat dutela. Besteak beste, tolerantziaren eta errespetuaren diskurtsoa kalean dagoela baina trebakuntza eta ezagutza falta dela uste du.

Administrazioan benetako berdintasuna egon dadin eman beharreko pausoei dagokienez, generoaren ikusgarritasuna lantzeko egin den lan guztia generoaren kontzeptu zabalago bat erabiliz egin behar diela dio, identitate sexualaren gaiak barne hartuz.

Alor pertsonalean, Eiderrek uste du ikusgarritasuna garrantzitsua dela, eta alor guztietan lan egiten jarraitu behar dela: akademikoan, publikoan, pribatuan, sozialean eta instituzionalean. Pertsona bisexualek eta LGTB kolektiboko errealitate guztiek ikusgarritasun askoz handiagoa izan behar dute be-launaldi berriek aukera gisa ikus ditzaten.

Bere etorkizuna nola irudikatzen duen eta ea emakume batekin bizitzen ikusten ote den galdetzean, zera dio, inoiz ez duela horretarako aukera izan, emakumeekin izan dituen harremanak sexu-harremanak edo lagunak izan baitira soil-soilik, *inoiz ez naiz haratago joan*. Badaki muga bat daukala bere barnean, aukera hori aintzat hartzean datzana, eta bestalde gainditu beharreko oztopoak daudela. Emakume batekin maitasunezko harreman bat izatea muga bat da bere baitan, gainditu beharreko guztiaren beldur baita, eta ez du batere gogorik horretarako. Arazotzat hartzen du, kosta egiten baitzaio bere bizitzako gauza zailei aurre egitea, eta asko kostatuko litzaioke azalpenak eman behar izatea, eta bere izaerarengatik ez du bere burua azalpenak ematen ikusten.

Bere etxean ez dakite harremanak izan dituela emakumeekin, nahiz eta gizonekin dituen historiei buruz gauza asko kontaktzen dituen. Neska batekin ateratzen hasiko balitz, kontatu aurretik harekin egonkortasuna izan arte itxarongo luke, etxean ez ezik oro har ere bai. Ez du uste bere inguruan erresistentziak egongo liratekeenik; hain zuzen, bere lagun-taldean lesbiana bat baino gehiago daude eta inoiz ez dute arazorik izan. Badaki bere ingurukoei ez zitzaiela kostako, baina bera da egoera horri aurre egin nahi ez diona. *Oztopoa nirea da, besteena baino gehiago.*

CARITO

*“Eskubideak jarrita daude
eta egin beharrekoa horiek zaintzea da”*

Carito Peru iparraldeko hiri oso txiki batean jaio zen. Bere familia han inguruko beste edozein familiaren antzekoa zen, berezitasun batekin: bere ama dibortziatu egin zen eta bere alaben zaintza hartu zuen. Caritok maitasun handiz gogoratzen du bere nerabezaroa eta gaztaroa. Eskolan oso ondo pasatzen zuen *ikasle-kazetarien* taldean parte hartzen, egunkari bat sortzen. Ildo horri jarraiki, kazetaritza ikasi zuen.

Unibertsitatean, errepresio fujimorista oso bortitz baten garaian, gai sozialen aldarrikapen batean parte hartu zuela oroitzen du. Elkartasuna zabaltzeko lanean ere aritu zen, garai hartan Peru herrialde guztiz gobernaezina zelako, eta ez zegoelako jarduteko askatasunik: *kartzela-zigor luzea jaso zenezakeen inoiz gobernuak non grata gisa ikusten zuen pertsonaren bati laguntzen bazenion*. Oso gogorrak ziren zenbait erronkei egin zien aurre, eta bere bizitzako osagai garrantzitsu baten babesa zeukan, bere eliza, lagun hurkoa baloratzen zuen eta edonor laguntzeko prest zegoen kristau-talde bat.

Bere familiari buruzko oroitzapen bikainak ditu, bere nerabezaroa nahiko zalapartatsua izan zen, eta beti, nola eskolan hala unibertsitatean, kristauen taldeetan sartuta egon zen.

Gaur egun Euskadiko landa-eremu batean bizi da. Duela urte asko etorri zen hona, arrazoi ekonomikoak baino gehiago arrazoi sozialak zirela eta, izan ere, Perun lana eta egonkortasun ekonomikoa zeuzkan, edozein pertsonak bezalaxe, baina emakume batez maitemindu zen eta atzerriratu egin zen, hori Perun gaizki ikusita baitago: *familia bat osatu nahi genuen eta haurdu geratu; horregatik erabaki genuen pausoa eman eta hona etortzea.*

Caritok izugarri gustuko du parte-hartze soziala eta Bilboko mugimendu asoziatiboa, urte asko eman ditu bertan eta. Bere jarduera kuttuna lankidetzara dela aitortzen du, eta horretan dihardu, hegoalderako proiektuak sortuz.

Beste emakume batekiko desioa sentitu zuen lehenengo aldian 30 urte zituen eta *gorputzean ikara handia eta min handia oroitzen ditu.* Testuinguru kristau batean hazi zarenean, non gauza horiek bekatu gisa ikusten diren, *nahi duzun azkeneko gauza huts egitea da.*

Bere lagun onenari kontatu zion zer gertatzen zitzaion, eta hark esan zion: *igandean elizara joango gara eta eliza osoaren aurrean jarri eta zer gertatzen den kontatuko duzu, eta barkamena eskatu behar duzu.* Proposamen horrek ez zuen asebate, eta hori jakinarazi zion bere lagunari. Hark, hausnartu ostean, deitu eta zera esan zion: *aizu, hori gertatzen bazaizu hitz egingo dugu eta ikusiko dugu baina nik gauza guztietan babestuko zaitut.* Hunkituta aitortzen du lasaitasun handia eman ziola hitz horiek entzuteak eta sentitzen zuenari buruz bere lagunarekin lasai hitz egiteak.

Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara:
Kolonbiako eta Euskadiko historiak uztartzen.

Caritok ez du nahi familiaren testuinguruari buruz hitz egin, eta gai horiek tabu direla eta sineste erlijiosoak oso indartsuak direla dio. Perun emakumeak adin batera heltzen direnean, haiengandik espero den guztiaren presio soziala jasaten dutela kontatzen du, eta galderak egiten dizkietela: *noiz ezkondu behar duzu? Noiz ekarriko dituzu haurrak?* Erlijioaren gaia dela eta, emakumeak ezin dira inposatutako heterosexualitate horretatik irten.

Bere jaioterrian, bi emakume besarkatuta edo eskutik helduta joan daitezke, eta ez da ezer gertatzen. Emakume ugari ikusten dira elkarri maitasuna adierazten, baina lagunak direla interpretatu ohi da, elkar zaintzen duten eta maite diren lagunak. Lagunen historia hori eraiki ohi da baina *“lesbianismoa gardentasunez bizitzea ez, zeren eta orduan zure auzoan iraintzen duten pertsona bilakatuko zara, eta agian norbaitek hori baino gehiago egin dezake, eta bortxaketa zentzatzailleak gertatu daitezke eta eraso asko jasan ditzakegu, eta noizbait sexu-aniztasuna defendatzen badugu, gure bizitzak arriskuan egon daitezke”*.

Carito ez da ikusgarri agertu bere jaioterrian; Bilbon, ordea, lasaitasun handiz bizi da, bere bikotekidearekin eskutik helduta ibili ohi da, eta ez da ezer gertatzen. Badaki emakume lesbianek erasoak pairatu izan dituztela, baina berak lasaitasun handiz bizi du bere sexualitatea, bere bikotekidearekin eta semearekin ibiltzen da kalean zehar. Emakume batekin ezkondata dago, seme bat dute eta familia gisa ibiltzeak lasaitasun handia ematen dio.

Lesbianismoaren eta sexu-aniztasunaren egoerari buruz egiten duen analisia zera da, herrialde honetan aurrerakada bat

egon dela, eta uste du mugimendu feministak eta mugimendu horretako emakume lesbianek egindako lanaren emaitza dela, egungo lasaitasun horrekin bizitzeko eta eskubideak izateko aldarria egin eta borrokatu zirenak. Badaki borroka bat eta ikusgarritasun-prozesu bat egon direla aurretik, eta borroka hori orain bere jaioterrian gertatzen ari dela, *neskak euren buruak ikusgarri jartzen hasi dira*, eta ondorengo belau-naldiek lan hori onartuko dutela espero du.

Bizitza ona eta eskubideak izatea talde batean parte hartzearekin lotzen ditu: ALDARTE LGTBI+ elkarteetan parte hartzen du berak, eta uste du *ikusgarritasun hori lortzeko lana burutu duen erakundeetako bat dela*, eta bat dator haren filosofia eta sexu-aniztasuna ikusteko eta aztertzeko moduarekin. Lesbianen eta gayen talde kristau bateko kide ere bada, eta bertatik LGTB pertsonen eskubideak aldarrikatzen saiatzen da, bere fedetik abiatuta. Aldarriarekin jarraitzea oso garrantzitsua dela sinetsita dago.

Eskubideak *jarrira daudela* eta egin beharrekoa *horiek zaintzea* dela pentsatzen du. Borrokatzen jarraitu behar da, irabazitakoa desagertu egin baitaiteke, eta bertan egon behar dela azpimarratzen du, zaindu egin behar direla. Familia homosexualen harira —gaur egun bere borrokaren erdigunean dagoen gaia—, oraindik ere bidea egiteke dagoela uste du, esate baterako, bere semeak eskolan ez dezan horrenbeste aldiz honako galdera honi erantzun beharrik izan: *zuk bi ama dauzkazu?*

Eskolek aldatu beharra dutela uste du, askotariko familiei ikusgarritasuna emateko, uste baitu ez dela gehiegi egiten

Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara:
Kolonbiako eta Euskadiko historiak uztartzen.

alor horretan, izan ere, euren seme-alabetako batzuek bullyn-
ga, irainak eta pintadaren bat jasan dute eskolan; ondorioz,
kezkaturata daude eta *alarmak piztu zaizkie*.

BIZITZA-HISTORIEN ANALISIAK:
BIZIRAUTEA,
AURRE EGITEA
ETA ERALDATZEA

➤ Sarrera:

Sexualitatea eta generoa bizitzeko eta izateko oso eredu zurrunak inposatzen dituen errealitate batean bizi gara, eta horrek pertsonen gaitasunak eta garapen librea murrizten ditu. Hori dela eta, behar-beharrezkoa da aniztasun hori kontuan izatea lankidetzak-ekintzetan eta gizarte eraldaketarako estrategietan, bai horien analisisan bai horien praktikan. Ondorioz, aniztasunari eta jokabide ez arautuei buruzko eztabaidan sakonduko dugu jarraian, jarduten dugun komunitateetan bizikidetzak on bat sortzeko asmoz eta, besteak beste, sexu- eta genero-eskubideak kontuan izanez.

Halaber, emakume lesbiana eta bisexualei buruzko eztabaida bat proposatu dugu, eta ez da kasualitatea, izan ere, LGTBI pertsonen multzoan ikusgarritasun gutxien duten errealitateetako bat da haiena.

lkerketan parte hartu duten emakumeak bizi diren lekuetako testuinguruak desberdinak dira:

- » Bata **Kolonia** da, non emakume lesbiana, bisexual eta trans pertsonen (LBT) eskubideak aitortzeko aurrerapauso garrantzitsuak eman diren. Hala ere, aurrerapauso horien benetako inplementazioak oztopo ugari izaten jarraitzen du, eta ez du bereizkeriaren eta indarkeriaren beharakadarik ekarri, ezta justiziarako sarbide handiagorik ere. LBT emakume askok, euren sexu-orientazio edo genero-identitatearen ondorioz, aurrez aurre topatzen dituzten aurreiritzien jarraitutasuna, talde armatuen presentzia eta bazterketa sozioekonomikoa

dela eta, eskubide urraketak eta indarkeria jasateko aukera gehiago dituzte. Gainera, azkeneko bi urteetan, “genero ideologia” kontzeptua darabilen diskurtso bat indartu da, emakumeen eta LGBTI+ pertsonen eskubideen aurka eta Estatuak biztanle horien berdintasuna lortzeko ezarritako neurrien aurka doana. Gobernuak jarrera pasiboa hartu du diskurtso horien aurrean, eta kasu batzuetan amore eman eta haien nahiak¹¹ onartu dituzte. Kolonbiak, eskubideen aitortzaren eta bereizkeria ezaren alorrean lege eta araudiei dagokienez aurrerapauso ugari eman dituenak, erakunde sendoak eta gizarte zibil oso aktiboa dituenak, oraindik ere zailtasun handiak ditu onartutako lege-xedapen ofizialak egikaritzeko eta, horrenbestez, LGBTI+ pertsonen bizitza eta duintasuna errespetatzeko. Horren jatorria, hein batean behintzat, herrialde honek bizi duen “apartheid instituzional” egoera izan daiteke, eta baita Kolonbiako imajinario kolektiboan LGBTI+ pertsonen aurkako aurreiritziek duten sustraitze sendoa ere, eskubide horiek egikaritu behar dituzten funtzionarioen artean barne.

- » Bigarren eszenatokia **Euskadi** da, non onarpen juridiko eta sozialak, eta azkeneko urteotan pertsonen arteko berdintasuna ahalbidetzeko burutu diren lege-erreformek, LGBTI+ pertsonen onarpen sozial handiagoa ekarri duten. Era horretan, gizartearen zati handienarentzat historikoki ezkutuan zeuden errealitateak agerian ja-

¹¹ Colombia Diversa <https://colombiadiversa.org/colombiadiversa2016/wp-content/uploads/2019/02/CEDAW-reporte-español-LBT-Colombia-1.pdf>

Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara:
Kolonbiako eta Euskadiko historiak uztartzen.

rri ahal izan dira, eta eskubideen parekatze juridikoa ekarri dute, zeinak legearen aurrean pertsona guztiak berdintasun plano berean ezarri dituen. Alabaina, LGBTI+ kolektibo ugari zera azpimarratzen eta argitzen dute, eskubideak babesten dituen esparru juridiko bat egoteak ez duela bere baitan segurtasuna, errespetua, eskubideak erabiltzeko sarbide berdina, edota LGBTI+ pertsonen aurkako indarkeriarik ez gertatzea¹² bermatzen. Haien aburuz, berdintasun legalak ez du berdintasun sozialik ekarri, eta oraindik asko dago egiteke.

Bizitza-historien analisirako, honako gida-galdera hauek egin dira:

- » Zer espezifikotasun dituzte indarkeria lesbofobikoek?
- » Zeintzuk dira garatu dituzten estrategia indibidual eta kolektiboak? Horiek ere ba al dituzte euren espezifikotasun propioak?
- » Kolektiboak balio al du aniztasunetik abiatutako ahal-duntze-espazio gisa? Zer zentzutan?
- » Ba al daude gure kolektiboetan prozesu inklusiboak sortzen laguntzen diguten erreferenteak?

¹² Estatuko gorroto-delituen urteko txostenaren arabera, Barne Arazoetako Ministerioak argitaratua, 2018an 1.598 gorroto-delitu izan ziren, 2017an baino % 12,6 gehiago. Espainiako Gobernuak Barne Arazoetako Ministerioa (2018). <http://www.interior.gob.es/documentos/642012/3479677/informe+2018/ab86b6d9-090b-465b-bd14-cf-cafccdfebc> ver también https://bideoak2.euskadi.eus/2019/04/16/news_53727/_CAS__2018_Incidentes_de_odio_en_Euskadi_-_C_tedra_Derechos_Humanos.pdf

Elkarrizketatutako emakumeek bizi izan duten indarkeriari aurre egiteko modu indibidual zein kolektiboan garatu dituzten estrategia eta tresnak aztertu nahi ditugu, emakume horiek eraldatze sozialaren eta ahalduntze kolektiboaren subjektu aktibo gisa aitortuz. Xede horrekin, parte hartu den testuinguruetan jaso eta partekatutako guztia ordenatzen eta biltzen saiatu gara, Kolonbiako eta Euskadiko errealitateak islatuz.

Analisiaren ardatzak, gauzatutako elkarrizketetatik jaso den informazioa antolatzeke erabili direnak, honako hauek dira:

- » **Biziraupen-mekanismoak:** sexualitateaz ohartzean, norberak bere segurtasun fisikoa babesteko garatzen dituen sentimenduei edo zenbait unetan puntualki agertzen diren neurriei egiten die erreferentzia.
- » **Aurre-egiteko jokabideak:** erasoak gainditzeko, jasan-dako indarkeriei zentzu berri bat emateko, ondorioak onartzeko eta euren bizitzako proiektuak eraikitzeke erabiltzen diren edo burutzen diren baliabideak dira; mekanismo horiek indibidualak edo kolektiboak izan daitezke.
- » **Eraldatze-estrategiak:** denbora jakin batean zehar antolatzen eta gauzatzen diren erantzunak eta ekintzak dira, aurreko bizi-baldintzak eraldatu eta sexu- eta genero-aniztasunaren kolektiboa inguratzen duten estereotipoak hautsi nahi dituztenak.

Analisi osoan zehar ulertu dugu eta aintzat hartu dugu tokiko errealitateak desberdinak izan arren denek izendatzaile komunak dituztela, bat aipatzearen, LGBTI+ kolektiboak jasaten dituen indarkeriak. Bilatzen dena zera da, giza eskubi-

Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara:
Kolonbiako eta Euskadiko historiak uztartzen.

deak berdintasunez gozatzearen aldeko borrokan indarrak batzea, eta burutu diren esperientzia arrakastatsuak partekatzea. Helburua ezagutza partekatzea eta pertsonen eta kolektiboen artean izaera global eta lokala duten aliantzak sortu ahal izatea da.

➤ **BIZIRAUPEN-MEKANISMOAK:** **estigvari erantzuten.**

Mekanismo hauek stigvari, erasoei, mehatxuei edo gertuko arriskua deneko beste une batzuei ematen zaien berehalako erantzunarekin eta aurre-egiteko moduarekin lotuta daude batik bat. Gehienak modu naturalean burutu dira, aldez aurretik pentsatu gabe eta emozioen berehalakotasunari erantzunez.

Oro har, jendea ingurune sozialak sexualitateei eta generoei buruz sortzen dituen definizioez —arautuak edo ez— jabetu ohi da, eta hala, euren sexualitatea eta generoa eraiki behar izaten dute, inguruko definizio kultural horiei erantzunez. Hain zuzen, elkarrizketatutako emakume guztiek duten ez-ugarri bat zera da, euren esperientzia lesbikoa edo bisexuala borroka eginez eraiki beharra izan dutela, batzuetan urte askotan zehar, gutxietsi eta deshumanizatu egiten dituzten aurreiritzi eta estereotipoen eraginaren aurka.

Ikerketaren atal honetan emakumeek euren lesbianismoaz jabetzean izandako harridurazko erantzunak, euren testuinguruan nagusi den lesbofobiaren ondorioz haiek euren desira bizitzeko dituzten mugak, familiaren presioak, eskolan izan-

dako bizipenak eta azkenik erlijioaren eta ideologia heteroarautuaren eraginak aztertuko dira.

↳ **Lesbianismoaz jabetzea:**

Hona hemen bildutako bizitza-historia gehienek partekatzen duten gertakari bat: emakume hauek, euren bizitzako uneren batean, bat-batean eta harriduraz topatu dute euren desira lesbikoa. Lesbianak direla jabetzeaz azaldu duten harridura edo sinesgaiztasuna, gertatzen ari denarekiko duten ezjakintasuna edota beren zalantza ugariak eta anabasa ikusirik, badirudi lesbianismoa ez zela euren sexualitateari dagokionez hasiera batean zeuzkaten planenetan agertzen. Heterosexualitatearen irudipen unibertsalak (eta horren barneratuta dauden sexu- eta genero-aniztasunarekiko norbere aurreiritziek) emakume guztiei sinestarazten die soilik aukera sexual bakarra dagoela, aukera heterosexuala, eta gainerako aukerak ezkutuan mantentzen ditu.

Emakume guztiek partekatzen duten beste egitate bat zera da, euren desirari sentimendu ezkorrekin erantzuten dietela: lotsa, errua, beldurra, izua edota gertatzen ari zaiena ukatzea. Sentimendu horiek testuinguruarekiko inolako loturarik gabe agertzen dira, baina modu biziagoan eta iraunkorragoan agertzen dira, eta eragin desberdinak dituzte emakume horiek haurtzaroan eta nerabezaroan onartuta sentitu diren testuinguru familiar eta sozialak izan dituztenean, edo kontrol eta sare sozial gehiago izatearen sentipena izan dutenean. Verónicaren kasua horren erakusle da; ez zuen bere haragitan bizi nahi telebistan LGTBI+ pertsonen buruz entzuten eta ikusten zuena, eta krisi pertsonal batean murgildu eta psikolo-

goarengana joateko erabakia hartu zuen (hark bere onarpen prozesuan lagundu zion).¹³

Kolonbiako emakumeek baino ingurune pertsonal eta sozial harkorrago eta atseginago bat izan arren, Cristina eta Eiderrek izan dituzten lotsa eta ukapen sentimenduak ikusita, sentimendu horiek euren testuinguruetako heteroaraudiaren erakusle direla esan behar da, azken hamarkadetan aldaketa sozial eta legalak izan diren arren, heteroaraudiak bertan jarraitzen baitu. Hain zuzen, Eiderrek ez ditu bere harreman lesbikoak aipatu familian.

↳ **Diskurtso sozial sexualki heteronormatibo eta mugatu batek baldintzatutako sexualitatearen erakuntza bat emakumeentzat:**

Kontakizun horiek agerian uzten dute emakumeek harreman heterosexualetan plazerik ez izatea onartzeko ezintasuna sustatzen dela gizartean, izan ere, desira eza hori zalantzan jartzen den arte urteak pasa baitaitezke, Caritoren kasuan gertatzen den eran. Desira sexualak txikitatik jaurtitzen dituen mezuei kasurik ez egitea edo horiek identifikatzea ez lortzea elkarrizketatutako emakumeen bizi-ibilbideetan oso ohikoa den egitate bat dela dirudi.

Azken hamarkadetan aurrerapenak izan diren arren, emakumeen gorputzei eta sexualitateari buruzko diskurtso sozialek

¹³ Oro har, denboran zehar luze irauten duten prozesuak dira, auto-onarpena heldu arte eta sentimendu ezkorrak gainditu ditzaketen arte.

mugatuak izaten jarraitzen dute, eta testuinguruaren arabera (Kolonbia eta Euskadi ez dira berdinak) emakumeek euren sexualitateari buruz jasotzen dituzten mezuak oso mugatuak eta heterosexualak dira. Ildo beretik, euren kontakizunetan, askok diote zaila egin zaiela euren desioak eta plazerak aintzat hartzea, eta honako hau gehitu beharko litzateke; batez ere, horiek izaera lesbikoa dutenean.

Ikusten dugun eran, atzera begiraturaz gero, emakumeekiko erakarpen, maitemin, sedukzio, jelsia, frustrazio, fereka eta muxuei buruzko oroitzapenak maiz agertzen dira. Oroitzapen horiek, geroago, helduaroan berreskuratutako eta identifikatutako desira lesbikoekin lotzen dira. Kontakizun horiek islatzen duten prozesu sozialean, hasieran ez dira identifikatzen edota aintzat hartzen desiraren esperientzia indibiduala, edota jarduera eta harreman lesbikoak, eta gero modu arazotsuan kudeatu behar izaten dira, zalantza, beldurrez eta nahasmenduz jositako bide batean barrena (ikusi dugun eran), esperientzia lesbikoa bideragarri eta koherente bihurtzea lortu arte.

Emaitza gisa, eta sufrimendu psikologikoaren denboraldi baten ondoren, emakumeen gehiengoak lortzen du bere desira lesbikoa onartzea eta bere bizitzako gauza interesgarri eta positibo gisa ulertzea.

↳ **Erljiioaren eraginari, familiaren presioei eta eskolako jazarpenari aurre egitea:**

Haurtzaroari dagokionez, eskola aipatzean emakumeek adierazi dute bertan indarkeria maila altuak jazotzen direla, bai

Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara:
Kolonbiako eta Euskadiko historiak uztartzen.

gelakideen aldetik, bai irakasleen aldetik edota sistemaren beraren aldetik, ez baitu pertsonen sexu- eta genero-aniztasuna aurreikusten eta zentsuratu edota baztertu egiten baitu. Indarkeria hori oso agerikoa da emakume kolonbiarren kontakizunetan. Verónicak oraindik buruan dauzka eskolan jasotako irainak: ene, a zer mari-gizona! Zer nolako mari-mutila! Jazmínek etengabe jasotzen zuen irakasleen mespretxua gizon baten eran jokatzegatik, eta zailtasunak izan arren, nota onekin graduatu zen. Lorenak zeharka bizi izan zuen lesbiana gisa identifikatutako ikasle bat ikastetxetik bota izana.

Gainerako emakumeek ez zuten indarkeria hori jasan, bai eskolako garai hartan ez zituztelako gustu, desira eta joerak bereizten, bai Caritok dioen eran bi emakume eskutik helduta edo besarkatuta egon zitezkeelako susmagarriak izan gabe, edo baita, afro jatorrikoa izateagatik, Mayraren kasuan bezala, bere jokabideak eta jantziek perfektuak izan behar zutelako. Mayrak oso gaztea zela jasan zituen arrazakeriaren ondorioak, eta oso modu sotilean, izan ere, afro jatorria ez zuten ikasleekin alderatuta bere jokabide ona indartu behar baitzuen.

Elkarrizketatutako emakume guztiek partekatzen duten lotura bat zera da, euren lesbianismoak jatorrizko familietan gatazkak sortu dizkiela. Orokorrean, euren familiak familia heterosexual tradizionalaren eredu eta mitora egokitzen dira, familia nolakoa izan beharko litzatekeen dioen uste kultural sorta batean datzana, eta zorientasuna lortzeko bide bakarra lotura heterosexuala eta ugalketa dela dioen ideian laburbiltzen dena. Hala, Cristinaren kasuan izan ezik, hasiera batean elkarrizketatutako emakumeen familiek ez zuten uste haien

homosexualitatea gertagarria zenik eta beldurrez, lotsaz eta kezka erantzun zuten, eta hasieran, euren alaben lesbianismoarekiko aurkako jarrerekin, neurri handiagoan edo txikiagoan. Horrek dakartzan tentsioak erabat agerikoak dira, bizitza-historiak nola garatzen diren ikusiz gero.

Horiek horrela, emakume askoren kasuan, haurtzarotik hasita gatazka eta indarkeria handienak etxeko testuinguruan gertatzen dira. Cristinaren kasua salbu, gainerako emakumeen familiak oso tradizionalak eta fededunak ziren eta horrek euren sexualitatea oso modu arazotsuan, traumatikoan, ezkutu edota etengabeko liskarrekin bizi izana ekarri die. Caritok adierazten duen eran, familiak ez du uzten inposatutako heterosexualitate irtetea, bai ezkontzeko edo seme-alabak izateko edota emakumeengandik espero den jokabidea izateko etengabeko presioen bidez, Jazmín kasuan bezala, edo Mayrari gertatu zitzaion bezala, beste leku batera bidali baitzuten murgildu berri zen gay girotik urruntzearen. Lorenak, bere familiaren nahiari men eginez, mutil-lagun bat izan zuen, eta bukatu arte harreman ona izan zutela oroitzen du.

Amekin alderatuta, orokorrean euren alaben desira lesbikoe-kiko zorrotzak eta gogorrak izan ohi zirenak, besteak beste Jazmín edota Mayrak euren aita edota izeben rolak azpimarratzen dituzte; haiek erlijio katolikoa izan arren, euren alabak edo ilobak ziren bezalakoak izatea onartu zuten, eta askatasunaren eta errespetuaren benetako babesleku bihurtu ziren urte askotan zehar.

Gainerakoek ez bezala, Cristinak eta Eiderrek esperientzia atseginagoa izan zuten euren familiekin, gatazka gutxia-

Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara:
Kolonbiako eta Euskadiko historiak uztartzen.

gokoa. Cristinaren kontakizuna bereziki aipagarria da, amak eman baitzion, alaba lotsatuta zegoen bitartean, bere balizko lesbianismoaren berri. Gero ez zen gaiari buruz gehiago hitz egin, Euskadiko familia askotan gertatzen den eran, eta familian ikusgarri agertzen diren LGTBI+ pertsona askok kontatzen duten eran. Eiderrek, bere bisexualitatean, ez du emakumeekin izandako esperientziei buruz hitz egiten bere familian, baina ez da bere aitaren edo amaren erreakzioen beldur delako, baizik eta bera delako oraindik ausartzen ez dena.

Familiarekin eta hezkuntza-sistemarekin batera, erlijioa da pertsonen irizpide moralengan eta jokabideengan gehien eragiten duen erakunde, batik bat Verónica, Mayra, Jazmín, Lorena eta Carito hazi ziren testuinguruetan, garbi adierazten baitute zeintzuk diren beren herrialdeetan eliza kristauak homosexualitatea etengabe kondenatzeak dituen ondorioak, elizaren doktrinak LGTBI+ pertsonetikiko aurreiritzi eta gorroto-diskurtsoen arrazoi nagusia bihurtu baitira. Aipamen berezi bat egin dute genero-ideologien¹⁴ aurkako mugimendua deitzen zaionari buruz, eliza katolikoaren sektore integristenek sustatzen dutena eta LGTBI+ pertsonen eskubideek au-

¹⁴ Bada nazioarteko mugimendu bat familia “tradizionala” babeste-ko eta “genero-ideologia” deitzen diotena eragozteko borrokatzen dena. Gai-zerrenda erabat zehatza daukate, besteak beste, sexu bereko pertsonen ezkontza edota adopzio homoparentalak, trans pertsonen eskubideak, eskoletan sexu- eta genero-aniztasuna irakastea eta abortoa gaitzestea barne hartzen dituen, hori guztia haurren eskubideen eta familia “naturalaren” estandartearen azpian. Mugimendu hau LGBTI+ pertsonen eskubideen antagonista gisa interpretatu izan da. Mugimendu honek bilatzen duena zera da, historikoki batik bat emakumeei eskubide-sorta bat ukatzeko balio izan duen genero-ordena ahuldu den lekuetan ordena hori berrezartzea.

rrerapausoak izatearen erabat aurka dagoena.

Erljioak eragin handia dauka, arestian esan den bezala, ingurune sozialaren gaitzespenean, eta norbera onartzeko zailtasunean islatzen da, kasu askotan ikusi ahal izan dugun eran, erru edo lots sentimenduak sortuz, horien jatorrian bekatuaren edota erruaren ideia erlijiosoak daudelarik.

- **AURRE-EGITEKO JOKABIDEAK:**
bizitako indarkeria gainditzea eta hari zentzu berri bat ematea. Erantzuten hastea, nahi den sexualitatea bizitzen hasteko.

Aurre-egiteko jokabideak aipatzean, LGTBI+ kolektiboko kide izateagatik jasandako indarkeriak gainditzeko eta horiei zentzu berri bat emateko garatzen diren taktika horiei egiten zaie erreferentzia. Era horretan, emakumeek biktimismotik irteteko prozesu bat abiarazten dute, euren buruak euren bizitza-proiektuetako subjektu aktibo gisa eratzen hasteko.

Beren historia pertsonaletan, emakumeek aitortza eta onarpen pertsonalera eraman dituzten prozesu bat aipatzen dute, horrek euren bizitzan rol aktibo bat hartzea eta gizarte heteronormatiboak inposatu nahi dien erru edo gaitzespena haustea ahalbidetu dielarik.

- ↳ **Bizilekutik eta jaioterritik alde egitea, desira lesbikoia bizi ahal izateko:**

Familiako etengabeko gatazkak zirela eta, Lorenak garaiz alde

Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara:
Kolonbiako eta Euskadiko historiak uztartzen.

egin zuen etxetik, baina berak erabakita, eta ez bota egin zutelako, oraindik ere Latinoamerikako LGTBI+ pertsona askori gertatzen zaien bezala. Sei hilabete Calin pasa izanak familiaren gatazkari buruzko beste ikuspegi bat eman zion Lorenari etxera itzuli aurretik, izan ere inoiz ez zuen nahi izan atzeko atetik irten eta, gainera, bere familiari entzun nahi zion han zeukala bere etxea itzuli nahi zuenerako.

Gasteizen bizi zuen giro tradizionaletik irtetea eman zion Eiderrek bere buruari emakumeekin bere lehenengo esperientziak izateko aukera. Panaman zegoela, bere familiarengandik urrun, izan zuen emakumeen espazioetan egoteko eta harreman lesbikoak izateko abagunea. Ez zen emakume batekiko sexu-erakarpena sentitzen zuen lehenengo aldia, baina gauza egingarri gisa ikusi zuen lehenengo aldia izan zen. Urruneko leku berri batek beste aukera batzuetara zabaltzea ahalbidetu zion. Lehenengo esperientzia horretatik abiatuta, irekitasun askoz handiagorekin bizi du hori guztia, baita Gasteiza itzultzen denean ere. Orain, desira sexuala pizten dioten emakumeak daudenean, badaki ez dagoela bidearen hasieran. Dena den, ibilbide bat egina duen arren, neskekin ligatzen duenean gizonekin ligatzen duenean baino askoz oztopo gehiago izaten jarraitzen duela sentitzen du, errefusarekiko beldurra desberdina baita.

↳ **Sexilioa**¹⁵:

Emakume gehienek jaiotze eta hazi diren eta familia eta lagunak

¹⁵ Sexilioa LGTBI+ pertsonak euren auzotik, euren komunitatetik edo euren herrialdetik alde egitera behartuta ikusten direneko fenomeno da, jasaten duten estigma sozialaren edo jazarpenaren ondorioz .

dituzten lekuetan ondo sentitzen direla dioten arren, Caritok bere herrialdeetik irten beharra izan du bere sexualitatea bizitzeko.

Caritok, Peruko landa-eremu batean jaioak eta bere bizitza soziala eta ekonomikoa bertan zituenak, Bilbora migratzea erabaki zuen (bere bikotekidearen jaioterria). Badaki bere jaioterrian ezin duela bere lesbianismoa modu irekian bizi erasoren bat jasateko arriskurik izan gabe. Caritok badaki bere lesbianismoaren gaia tabu bat dela bere familian, eta bere jaioterrian ez da lesbiana gisa ikusgarri agertu. Migratzera bultzatu duten arrazoiek lotura zuzena dute bere sexualitatearekin, eta desira hori askatasun handiagok bizitzeko leku bat nahi du. Leku hori Euskadi da.

Azken hamarkadetako aurrerapauso legal eta sozialek (sexu- eta genero-aniztasunaren mugimenduak eta mugimendu feministak izugarri borrokatu dituztenak) euskal gizartea LGTBI+ pertsonetikiko adeitsuagoa eta atseginagoa izatea errazten dute. Caritok bere lesbianismoa modu publikoagoan adierazi dezake eta bere bizitzako proiektua bere emaztearen eta bien semearen alboan gauzatu dezake, familia bat izanik eta hala sentituz.

↳ **Norbere burua emakume lesbiana gisa hautemateko prozesua kudeatzea eta eraikitzea, familiaren erreakzio eta harremanetan oinarrituta:**

Familiaren edo familiaren zati baten babes izatea berebiziko garrantzia duen faktorea izan da emakume hauen bizitzetan. Izan ere, babes hori izateak baliabide gehiago eskaini dizkie

Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara:
Kolonbiako eta Euskadiko historiak uztartzen.

beste emakume batzuekiko desirak izatearen zailtasunei aurre egiterakoan, zenbait kasutan, sexu- eta genero-aniztasuna errespetatzeko inolako joerarik ez zuten gizarte batzuetan. Hain zuzen, bada nahiko esaldi orokortu bat zera dioena, familiak babesa ematen duenean —eta hori batzuetan urte askoren ondoren gertatzen da— LGTBI+fobia gainditzea errazagoa dela dirudiela.

Zalantzarik gabe, Mayraren edo Jazmínen nerabezaroan euren ageriko lesbianismoa kondenatu ez zuten aitek eta izeba bat izateak, beren sexualitatea barne-gatazka gutxiagorekin eta indar eta erabakitasun handiagoarekin bizitzea ahalbidetu zuen. Aita horiek eta izeba horrek zera egin zuten: a) etxean amaren aurrean edo eskolan gelakideen edo irakasleen aurrean lotsarazi gabe izan ezin zituzten jokabide edo adierazpen maskulinoak onartu; b) beraiekin hitz egin errietak jasotzen zituztenean kontsolatzeko edo beste emakume batzuekiko sentitzen zuten horretaz mintzatzeko; c) emakumei edo gayei buruzko erreferentzia positiboen unibertso zabal bat ireki, liburuak eskainiz.

Cristina eta Eiderrek, testuinguru zuri eta euskaldun batean jaio, hazi eta hezi diren emakume bakarrek, gainerako emakumeen alboan, ez dute horren egoera gatazkatsua izan familiar haien sexualitatearen harira. Badakite familiarren babesa dutela, modu esplizituan horretaz hitz egiten ez den arren; Cristinaren familiar, adibidez, ez dakitelako nola egin, eta Eiderren kasuan, ez delako ikusgarri agertu familiar. Eiderrek onartzen du bere familiarekin bere harreman lesbikoei buruz hitz egin ahalko lukeela (eta zentzu horretan haien babesa sumatzen du), baina ez da ausartzen, bere lotsarekin lotutako

kontuak direla eta. Babes hori izateak hazteko eta beren sexualitatea baieztatzekeo prozesu bat ahalbidetu die, familiako indarkeriak Lorena, Jazmín, Mayra edota Verónicari ekarri dizkien barne-gatazkarik gabe. Carito 30 urterekin jabetu zen emakumeekiko zuen desiraz, eta hori dela eta ez zuen liskar irekirik izan bere familiako pertsonekin; haiek gaia tabutzat duten arren, badakite lesbiana dela eta bere bizitza-proiektua beste emakume batekin partekatzen duela.

↳ **Zure desira berberak dituen beste emakume bat aurkitzea: ambiente-lekuak eta beste zenbait kontu**

Emakume horien guztien lehenengo erronka beste emakume batzuekiko erakarpenaz ohartzea eta hori onartzea izan zen bitartean, bigarren erronka desira berberak zituen emakume bat aurkitzea izan zela diote askok. Gizarte heteronormatibo baten arazoetako bat, ez baita ahaztu behar heterosexualak ez diren sexualitateak isilarazi egiten dituela, esperientzia sexualerako sarbidea eta aukera da. Zailtasun hori sexuaren lorpen soilaz haratago doa, gizartea bera baita, sexualitate jakin baten aurkako aurreiritziak sortuz —lesbianismoaren kasuan bezala—, jarduera lesbikoa emakumeentzat maiz eskuraezina izatea dakarrena.

Lesbiana askoren borroka gizarteak eskuraezin bihurtzen duen hori eskuragai jartzea lortzea da. Eta zeregin horri dago-kionez, elkarrizketatutako emakumeak ez dira desberdinak.

Beste lesbiana batzuk ezagutzeko erabilitako moduak askotarikoak dira: pertsona gehiago egon arren LGTBI+ pertsonak biltzen dituzten taberna eta diskotekak, sare sozialen era-

Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara:
Kolonbiako eta Euskadiko historiak uztartzen.

bilera lagun berri eta zaharrekin elkartzeko, militantziak eskaintzen duen topagunea, LGTBI+ pertsonak elkarretaraten dituen eta hiri guztietan egon ohi den parkea, edo kirola, gero eta lesbiana gazte gehiago elkartzen dituen eremua.

Parkeak topagune eta beste lesbiana batzuk ezagutzeko gune gisa erabiltzeari dagokionez, eremu hori batik bat Kolonbiako emakumeek erabiltzen dutela azpimarratu behar da. Euskadin, zenbait parketan, cruising¹⁶ deiturikoa gauzatzen dute gizonak, baina ez horrenbeste emakumeek, emakumeak ez baitira parkeetan elkartzen.

Elkarrizketatutako emakumeen kontakizunen arabera, parkeak dira LGTBI+ pertsonak elkartzen diren lekuak eta, beraz, oso estigmatizatuta eta gaizki ikusita daude. Orokorrean, parkera joaten diren pertsonak mota guztietako indarkeria jasateko aukerak izan ohi dituzte. Esate baterako, Kolonbiako gatazka armatuaren esparruan paramilitarrek banatzen zituzten garbiketa sozialaren panfletoek (besteak beste LGTBI+ pertsonak barne hartzen zituztenak) argi eta garbi parkeak aipatzen zituzten topagune gisa. Hala eta guztiz ere, parkeetara doazen emakumeek beste lekuetako eragozpenik gabe afektibitatea adierazteko benetako aukerak ematen dien askatasuna aurkitzen dute.

¹⁶ Pertsona helduen artean burutzen den ligatze, morbo edo sexu kasualaren jardunbide bat, bereziki gizon gay eta bisexualen artean gauzatzen dena, baina baita jakin-mina duten heterosexualen artean ere, aire zabalean edo instalazio publikoetan, adibidez, parke, igerileku, autobus edo tren geltokietan, zerbitzu publikoetan edota zerbitzuguneetan.

Unibertitatearen beste topagune bat dela aipatu izan dute, aurrez bizitako munduarekiko erabat desberdina baita; askatasun handiagoa eta jendea ezagutzeko eta lagunak egiteko aukera gehiago eskaintzen dituen mundu bat. Mayra ingurune horretan hasi zen ikusgarri agertzen eta gay komunitatearekin ibiltzen, eta bere haurtzaroko lagun lesbiana bat topatu zuen han.

↳ **Ekonomikoki burujabea izatea norbere burua onartzeko:**

Lorenak bere burua lesbiana gisa onartu zuenean ekonomikoki burujabea zela azpimarratu nahi da, horrek gauzak asko erraztu baitzituen, izan ere, bere familiaren eraginak horrenbeste baldintzatzen ez zituen erabaki batzuk hartzea ahalbidetu zion.

Elkarrizketatutako emakumeen bizitzetako zati handi batean abusuen eta tratu txarren egoera batzuk izan direla ikusi dugu, familiako eta eskolako ingurunetik ihes egitera bultzatzen zituztenak. Aldiz, desio horiek desagertu egiten dira ezin moldatzeko eta ikasketarik gabeko etorkizun bat izateko benetako beldurrarengatik. Gizarte heteronormatiboak funtzionatzen eta irauten badu, beste gauza batzuen artean, pertsona askok, LGTBI+ izan edo ez, ekonomikoki euren bikotekidearen edo familien menpe daudenean izaten duten mendeotasunarengatik da, tratu txar fisikoak edo psikologikoak jasatera eramaten dituztenak.

Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara:
Kolonbiako eta Euskadiko historiak uztartzen.

➤ ERALDATZE-ESTRATEGIAK

lkerketa honetan elkarrizketatutako emakumeen kasuan, eraldatze-estrategiak biziraupen-mekanismoak eta aurre-egiteko jokabideak modu artikulatu eta kontzienteagoan bizi izanaren ondorio dira. Oro har, kolektiboki eta modu sistematikoan beste eragile politiko, sozial eta kulturelekin batera abiarazten diren estrategiak izaten dira, eta euren azken helburua gizartea eraldatzea da, LGTBI+ pertsonen aurkako indarkeria eta euren eskubideen urraketak gutxitzeko eta errotik desagerrarazteko.

↳ **Eraldatzeko antolatzea:**

Estrategia horien artean, aipagarriak dira kolektiboan bertan burutzen diren prozesu antolatuak eta, gainera, elkar babes-teko sareak sortzen eta indartzen laguntzen dutenak. Ildo horretatik, bitzta-historia guztiek antolaketa balioketaren balioa azpimarratzen dute borrokatzeko eta beren gizartea eraldatzeko. Verónica Funquidiversas erakundearen hasi zen, bere hiriko LGTBI erakundearen; Mayra eta Jazmín Arcos Diversos fundazioko kide dira, egun bizi diren herrian dagoena. Cristinak, LGTBI+ taldeetan parte hartzeaz gain, mugimendu feministan jarduten du. Caritok bizi-kalitate ona eta eskubideak zuzenean erakunde batean parte hartzearekin lotzen ditu, eta ALDARTEren talde kristau bateko kide da, LGTBI+ kolektiboan oinarritzen dena.

Gainera, elkarrizketatutako emakume askok norberaren tokitik hasita, hurbileko ingurunetik eta egunerokotasunetik hasita eraldatzearen garrantzia azpimarratzen dute: hurbileko

pertsonei LGTBI+ gaien eta errealitateen berri ematea, kaleetara irtetea eta jaioterrian geratzearen aldeko apustua egitea.

Alabaina, denak ez dira esklusiboki LGTBI+ inguruneetan antolatzen: Cristina, Eider eta Caritorentzat beste kolektibo eta mugimendu sozialekin sortzen diren harremanak oso garrantzitsuak dira. Hain zuzen, Carito betidanik antolatu izan da, eskolako garaian egunkari bat sortzetik hasita, baita unibertsitate garaian bere jaioterriko errepresio politikoaren aurka gai sozialak aldarrikatzen zituenean ere.

Cristinak, modu kontziente eta politikoan bollera etiketa hartzen duenak, egitura feminista batzuetan parte hartzen du, eta mugimendu feministari zor diona aitortzen du, izan ere, mugimendu feministak bere bizitzan izan duen funtsezko rola eta emakumeen sexu-eskubideen aldarrikapenean izandako funtzioa aitortzen du, lesbianenak barne.

Hilabete batzuetan zehar ALDARTE erakundean burutu zuen lanak eta genero-aholkularitza batean gauzatzen duen bere egungo lanak emakumeen erakundeekin harremanetan egotea eta egungo eztabaida feministak gertutik ezagutzea ahalbidetzen dio Eiderri.

Elizak euren hierarkia baino gehiago dira, eta asko dira elizaren jarraitzaile izanagatik haiek homosexualitateari buruz egiten dituzten planteamenduen aurka dauden pertsonak. Argudio horiekiko kritikoak diren pertsonak izan ohi dira, eta LGTBI+ pertsonak onartzen dituztenak. Esparru horretan,

Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara:
Kolonbiako eta Euskadiko historiak uztartzen.

badira LGTBI+ talde kristauak, adibidez BETANIA¹⁷, Caritok parte hartzen duen taldea; besteak beste, kristautasunaren eta sexu- eta genero-aniztasunaren artean gatazkarik ez dagoela eta, aldiz, kristautasunaren eta LGTBI+fobiaren artean gatazka dagoela diote.

↳ **Burututako borrokatik espero diren emaitzak:**

Indarrak hartzeko eta ulertua sentitzeko, antzeko egoeran daudenen elkartasunezko espazio seguruetan babesteko beharrezana ikus daiteke, batik bat Kolonbian, azalpenak emateko beharrik gabe edo etengabe erasoen jomuga izan beharrik gabe. Gertuko sare propioek, antzeko pertsonen arteko elkarrizketa horien eta beste planteamendu batzuk partekatzearen ondorioz, norberaren eraldaketa-sare propioetan parte hartzen duten pertsona eta kolektibotan islatzeaz gain (norberari dagokionez, auto-kontzeptuari dagokionez), esfera politiko eta sozialetako aldaketen eta eraldaketen perzeptzioan ere islatzea ekartzen dute.

Mayra eta Jazmín erreferente bihurtu ziren euren hirian, kalean ikusten dituen gazteria euren borroka jabetzen da eta eurekin harremanetan jartzen da laguntza eske. Babes eta elkartasun-sare bat sortzea LGTBI+ izateagatik egunerokotasunean bizi den indarkeria-egoera ikusgarri bihurtzeko helburua duen aldarrikapen publiko sorta bateko lehenengo ekintza da. Jakin badakite jende asko euren lanaren aurka

¹⁷ ALDARTE erakundeko talde bat da, gay, lesbiana, trans eta LGTBI+ errealitate fededunera gerturatu nahi duten pertsonen taldea, hausnarketa-espazio gisa sortua, fedea eta esperientzia pertsonalak partekatzeko. <http://aldarte.org/es/grupos-ver.asp?id=1>

dagoela, baina euren udalerrian LGTBI+ pertsonetikiko perzeptzioa aldatu egin dela uste dute, eta laguntzeko aukera izan dutela, pertsona asko herritik joatea edo drogetan erortzea saihestuz, horrek are gehiago handitzen baitu kolektibo honen kalteberatasuna, herrian ez ezik herrialde-mailan jarduten duten mara kriminalen ondorioz.

Verónicak argi dauka borrokatu egin behar dela, eta hezkuntzaren bidezko eraldaketa bilatzen du; berarentzat funtsezkoa da ikasketak burutzea LGTBI+ pertsoneri buruzko imajinario sozialak aldatzeko, eta horregatik bere ingurune lesbikoa konbentzitzen saiatzen da ikasi dezaten eta trebatu daitezen gero gizartea sentsibilizatzeko, desira guztiak errespetatu ditzan eta pertsona bakoitza hark nahi duen eran onartua izan dadin.

Eiderrek dio feminismoak eta erakundeetako berdintasun sailek, oro har, generoaren inguruan duten kontzeptualizazio horren binarioa aldatu beharko luketela, askotarikoagoa izan dadin eta pertsonak bizi dituzten beste genero-errealitate batzuetara irekiago egon dadin. Ildo bertsuari jarraiki, Cristinak uste du aldaketa garrantzitsu bat behar dela, adibidez, lege integral bat, lesbianek jasaten dituzten indarkeriak aterki feministaren barruan daudela aitortuko duena eta genero-indarkeria gisa kontzeptualizatu beharko lireratekeela dioena.

Caritok dio lortutako eskubideak zaindu egin behar direla eta ez dela pentsatu behar hor egongo direla besterik gabe, izan ere, eskuinaren eta genero-ideologiaren gorakadak berdintasunaren alde borrokatzera derrigortzen baitu. Carito familia homoparentalen alde borrokatzen da, non oraindik ere ibilbi-

Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara:
Kolonbiako eta Euskadiko historiak uztartzen.

de luzea baitago egiteke. Eskolek familia askotarikoei ikusgarritasuna emateko eta irainak eteteke lan egin behar dutela pentsatzen du, batzuetan, bi ama edo bi aita dituzten haurrek irainak jasotzen baitituzte.

Jazmínek eta Mayrak onartzen dute beste erakunde batzuekin modu kolektiboan lan egin izanak indartu egin dituela, eta eskubide-berdintasunaren aldeko euren aldarrikapenei tonu formalagoa eman diela. Bereziki poztu dira euren hurbileko testuinguruan aldaketa bat gertatzea lortu dutelako, gertuko pertsonak —esaterako, horietako baten ama— manifestazioetara joatea eta euren babesari ematea lortu baitute.

↳ **Ikusgarritasunaren garrantzia:**

Ikusgarritasunaren estrategia ekintza politiko bat da elkarriketatutako emakume askorentzat, ez da pertsonala soilik. Ikusgarritasuna graduz aldatzen da testuinguruaren arabera eta bere baitan daukan berezko osagai bat dela eta, imajinarioak eraldatzeko, beste pertsona batzuentzako erreferente berriak sortzeko eta, beraz, heterosexualitatearen uste unibertsala hausten joateko modu bat da.

Ikusezintasuna gizarte heteroarautu eta patriarkal bateko zapalkuntza handienetako gisa ulertuz gero (izan ere, ize-nik ez duena eta ikusten ez dena ez da existitzen), ikusgarri agertzea bere baitan eraldatzailea da eta emakumeak euren testuinguruetan erreferente lesbiko bihurtzen ditu. Ikusgarritasuna euren bizitzetako egunerokotasunean gauzatzetik haratago doa eta beste esparru batzuetara hedatzen da, adibidez, erakunde, kaleetako agerraldi edo politikaren esparrura.

Caritok bere harrera-herrialdeko aldaketak eta bere jatorriko herrialdean (Peru) gertatzen ari direnak ikusgarritasunaren ondorio gisa interpretatzen ditu, izan ere, ikusgarritasuna emakume feministen eta lesbianen borroken ondorio zuzena da. Bere ustez emakume lesbiana askok ikusgarri agertzean erakusten duten ausardia eta kemena aitortu egin beharko litzateke, eta borrokan hastear diren belaunaldi berriek ez luketela hori ahaztu behar.

Ikusgarritasunak, indarkeria jasateko aukera gehiago dakartzan arren, indartze indibidual eta kolektibo handiagoa ere badakar. Mayra eta Jazmínek, bai bakarrik bai bikote gisa doazenean, mota guztietako irainak eta egoera oldarkorak jasan behar izaten dituzte. Hala eta guztiz ere, ez dira emandako pausoez damutzen, izan ere, antolatuta egoteak indartsuago sentiarazten dituzte etengabeko mespretxuen aurrean eta horiei aurre egiteko gaitasun handiagoa dutela sentitzen dute, betiere modu kolektiboan eta beste erakunde batzuekin batera.

Ikusgarritasunak lehen ageri ez ziren LGTBI+ pertsonen imajinario kolektibo bat zabaltzen du, eta zapalkuntzaren egitura heteronormatiboaren funtzionamenduari buruzko hausnarketak pizten ditu. Mayrak badaki ez dagoela bakarrik, izan ere, beste erakunde eta pertsona batzuk ezagutzen ditu, beste leku batzuetan egon arren bere herrian gertatzen diren gauzen antzekoak bizitzen ari direnak. Ikusgarritasunak bere gatazkaren ikuspegi desberdin bat ematen dio Mayrari, antolatzea eta borrokatzea eskatzen duen zapalkuntza bat bihurtzen baitu, bere ingurunea pertsona guztiak bizi ahal izango diren espazio bat izan dadin.

Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara: Kolonbiako eta Euskadiko historiak uztartzen.

Mayrak eta Jazmínek, espazio publikoetan daudenean, babes- eta zaintza-neurriak hartzen dituzte: beti norbaitek nora doazen jakin dezan saiatzan dira, eta bakarrik daudeneko espazioak saihesten dituzte. Egunero bizi duten indarkeriak ez die lagun heterosexualak izatearen balioa ikustea galarazten, zeinak euren bizikidetzamoduari erreparatzen dioten eta berau kopiatu nahi duten.

Cristina da gure gizarteetan ikusgarri jarri beharreko egiturazko dimentsioari buruz argi hitz egiten duen bakarra: ikusgarritasun indibiduala kolektiboan islatu behar dela dio, eta uste du ezinbestekoa dela esfera publikoan eta politikan ikusgarritasuna egotea. Berarentzat herriko eguneroko bizitzan eta mugimendu sozialetan erreferenteak edukitzeaz gain, beharrezkoa da egiturazko ikusezintasuna desagerraraztea, eta hori lortzeko beharrezkoa da politikaren arloan ardura handiko postuetan edo botere ekonomiko eta kulturala duten postuetan daudenek publikoki ikusgarri jartzeko erantzukizuna euren gain hartzea.

↳ **Bisexualitatea, LGBTI+ akronimoko errealitate ahaztua.**

Eiderrek eta Cristinak jardunbide bisexualak dituzten emakume gisa deskribatzen dute euren burua. Biek ala biek bereizkeria bikoitza jasateko aukera aipatzen dute: bai pertsona heterosexualen aldetik, bai gay eta lesbianen aldetik. Ildo horretatik, printzipioz kolektibo bereko (LGTBI+) kideak diren pertsonen ulermen eta onarpen faltak kolektibotik kanpo uzten ditu dagoeneko talde horretako pertsona kaltebera baztuz, esate baterako, pertsona bisexualak. Bisexualitatea oso errealitate ikusezina da.

Cristinak bere desira bisexuala bizitzeko duen modua eta Eiderrena oso desberdinak dira. Cristinari bere bisexualitateak ez dio izaera pertsonaleko gatazka kontraesankorrik ematen, bere lagun lesbianen enpatia gutxiko hitzak entzutea salbu, zeinek ez duten bere desira sexualaren aldakortasuna ulertzen. Cristinak ez du bere bisexualitatearen alderdi lesbikoa ezkututzen, eta guztiz jakitun da nor bere burua gizartean lesbiana gisa aurkezteak zer zailtasun eta ondorio nagusi ekartzen dituen. Ez du hori ukatzen, eta horregatik bere burua bollera gisa definitzeko erabaki politikoa hartu du.

Eiderrek kontraesan gehiagorekin bizi du bere bisexualitatea, soilik bere alderdi heterosexuala erakusten du, eta hala definitzen da gizartean. Ez zaio erraza egiten bere harreman sozialetan bere bisexualitateari buruz hitz egitea, inoiz ez baitu bere desira partekatzen duen inor aurkitzen. Arrazoi du lesbianismoak espazio identitario bat duen bitartean bisexualitateak ez daukala halakorik dioenean, eta erreferentzia publiko gutxi daude. Zaila egiten zaio bere sexualitatearen alderdi lesbikoari buruz hitz egitea, badaki bere burua lesbiana gisa aurkezteak zer ondorio dituen eta oraindik ez dago prest horretarako.

Aipatutako gai horiek guztiak direla eta, oso zaila da pertsona askok sexualitateari buruz duten ideia desagerraraztea, definizio sexualak oso finko eta egonkor egon behar duela eta heterosexualitateetik homosexualitatera pasatzea —eta alderantziz— ez dela ulergarria dioena; ideia hori oso errotuta dago LGTBI+ pertsonen artean.

GIDA-GALDEREI BURUZKO AMAIERAKO HAUSNARKETAK

Hausnarketa hauen helburua eztabaida ireki bat iradokitzea da, proposatutako gaiei buruzko eztabaida-truke bat eragingo duena. Ikerketaren abiapuntuan egindako hipotesi-galderen inguruan egituratu dira:

Zer espezifikotasun dituzte indarkeria lesbofobikoek?

Elkarrizketatutako emakumeek euren kontakizunetan ez dute eurek jasandako indarkeriaren eta gizon gay edo pertsona transek jasaten duten indarkeriaren konparazio-analisirik egin, baina hala ere indarkeria lesbofobiko eta bifobikoen espezifikotasunei buruzko hausnarketa batzuk egin daitezke.

↳ Amaren irudia:

Elkarrizketatutako emakumeen gehiengoak amaren irudia azpimarratu du bere kontakizunean. Zalantzarik gabe, hura da kezka guztien erdigunea, eta harekin ebazten eta konpontzen dira tentsio eta gatazka gehienak. Amak beren desira lesbikoak errespetatzeak eman dien lasaitasuna azpimarratu dute askok.

Amaren irudia da, maiz sineste erlijiosoen eraginpean, bere alabei emakume diren heinean dagozkien rolak ez betetzearen gaia gogortasun eta zorrotzasun handienaz jorratzen duena. Nahi ala ez, oraindik ere munduko leku askotan eremu pribatuko alor handi horretako —familiako— bizitza mantentzearen arduraduna ama da, eta bera da emakume lesbiana batek bere heziketan, zaintzan eta hazkuntzan topatuko duen irudia.

Horrez gain, elkarrizketatutako emakumeek beren amekin duten harremana ulertzen lagun dezakeen beste faktore bat ere bada. Zenbait ikerlarik, esate baterako Pérez Sanchok (2005), uste dute LGTBI+ pertsona baten familia-integrazioan gehien eragiten duen alderdietako bat haren generoa dela, gizona edo emakumea izatea. Eta zera gehitzen dute, familiak hobeki integratzen duela seme gay bat alaba lesbiana bat baino. Orokorrean, emakumeek euren familietan gaitzespen ugari jasotzen dituzte oso maskulinoak direnean edo gizonen antzera jokatzeko dutenean, eta presio handiak jasaten dituzte ezkontzeko eta seme-alabak izateko. Kultura askotan, alabek emakumeei esleitzen zaizkien rol tradizionalak euren gain hartuko dituztela espero da. Hori dela eta, oraindik ere oso zaila da lesbianek euren familietan beren lesbianismoaren onarpena jasotzea.

↳ **Bortxaketa zentzatzailleak**

Caritok, bere jaioterrian ikusgarri agertuz gero, bortxaketa zentzatzaille bat pairatzeko aukera duela gogorarazten digu.

Emakume lesbianen aurkako indarkeria basatienetako bat “bortxaketa zentzatzaillea” deiturikoa da, bere homosexualitatea “zuzentzeko” lesbiana bat bortxatzean datzan kontzeptua. Kasu izugarriak gertatu izan dira, besteak beste, Hego Afrikan, Perun, Txilen edota Mexikon. LGTBI+ elkarten laguntza-webguneetan edo Twitterren eta era horretako sare sozialetan bortxaketa zentzatzaillei buruzko historia mordoa daude. Euren osaba, aita, neba eta lagunek abusatu eta bortxatu egiten dituztela kontatzen duten lesbianak dira, “gizon bat zer den proba dezaten” eta beren lesbianismoa

“zuzentzeko” asmoz. Horrek zera esan nahi du, senitarte-koek, lesbianen sexualitatea erreprimiteaz gain, haien bizitzari erasotzen dietela, euren segurtasun fisikoa arriskuan jarritz, kolpeak emanez eta sexu-indarkeria mehatxu gisa erabiliz. Perun, zera dio No Tengo Miedo elkartearen “Estado de Violencia” txostenak: *“hura zuzentzeko edo sendatzeko, kontrol emozionala eta ekonomikoa erabiltzen da, baita sexu-indarkeria-ren eta heriotzaren mehatxua ere”*.

↳ Ikusezintasun handiena

Emakume hauen kontakizunetan garbi geratu da zer nolako karga soziala daukan lesbiana gisa agertzeak; hori batzuentzat oso gai kontraesankorra eta gogorra da, eta zalantzarik gabe genero-desparekotasunarekin lotuta dago, zeinaren ondorioz oraindik ere emakume batentzat publikoki lesbiana gisa agertzea ez den gizon batentzat publikoki gay gisa agertzearen parekoa. Elite ekonomiko, kultural eta politikoe-tan emakume lesbianen erreferentzia gutxi izatea bera, erreferentzia gay ugari dauden bitartean, zailtasun handi horien erakusle bat da.

Interesgarria eta beharrezkoa zaigu ikusezintasun lesbi-koaren hiru alderdi aipatzea, horiek bizitza-historietan aipatu ez dituzten arren:

1. “El prejuicio no conoce fronteras Homicidios de lesbianas, gay, bisexuales, trans e intersex en países de América Latina y el Caribe 2014 – 2019” izeneko txostenak, LGTBI+ pertsonen erailketen harira, eskualde horretan lesbianen datuak baxuagoak direla dio. Sare honetako

CATTRACHAS behatokiaren hipotesi batek zera dio, lesbianen kasuen datua emakumeen erailketen zifren barruan egon daitekeela, feminizidioaren barruan, haien sexu-orientazioa identifikatu gabe eta, beraz, txosten ofizialetan, komunikabideetan eta gure sisteman bertan benetako kopuruak baino txikiagoak erregistratzen direla, biktimak identifikatzerakoan ez dagoelako sentzibilitate egokirik.

2. Espainian sexu-orientazio edota genero-identitatearen ondorioz dagoen bereizkeriari buruzko 2013ko ikerketaren (FELTGB, COGAM, 2013) arabera, LGTB biztanleriaren sektore batzuk kalteberatasun-maila berezia dute, eta egoera okerrena emakume lesbianeiei egokitzen zaie.
3. ILGA erakundeak 2019an estatuko homofobiari buruz eginiko txostenak, aurreko urteetan bezala, zera dio; zenbait herrialdek homosexualitatearen aurka duten legedietan ez dela emakumerik aipatzen, homosexualitatea soilik gizonengan aurreikusten baitute. Lesbianismoaren ikusezintasuna estatutik bertatik sustatzen dela erakusten duten zenbait adibide dira horiek, imajinario kolektiboan harreman lesbikoen ezinezkotasuna indartzen dutelarik.

Zeintzuk dira garatu dituzten estrategia indibidual eta kolektiboak? Horiek ere ba al dituzte euren espezifikotasun propioak?

Emakumeen kontakizunetan aurkikuntza, auto-onarpen, aurre-egite eta gizarte-eralditze prozesuak aipatu dira. Bizitza-

historien analisisian adierazi den eran, prozesu horiek, oro har, luzeak eta mingarriak izan dira, nahiz eta emakumeen ahalduntze indibiduala eta kolektiboa sustatzen duten.

Lesbiana edota bisexual ahaldundu eta zoriontsuak izatera heltzea euren biografietan aurrekaririk gabeko lorpen pertsonal bat izan da emakume horientzat guztientzat, eta esfortzu eta denbora kantitate handia eskaini diotela eta eskaintzen diotela ikusten da. Euren kontakizunek barneratutako aurreiritzi sozial asko gainditu izana eta sozialki negatiboa izaten jarraitzen duen beren alderdi bat integratzeko etengabeko borroka islatzen dute. Gutxitan edo behin ere ez zaie esaten lesbianeiei besterik gabe emakumeak maite dituzten eta, edozein pertsonak bezalaxe, zoriontsu¹⁸ izatea merezi duten emakume bikainak direla.

Emakumeek nola Kolonbian hala Euskadin erakutsi duten gauza bat zera da, euren desira sexuarekin bat datorren bizitza-proiektu bat izatea lortzea inplikazio sozial eta politiko asko dituen lorpen bat dela. Sexu- eta genero-aniztasunaren alorrean aipatu dituzten aurrerapauso sozialak eta legalak, funtsean, euren jaioterrian izan duten ikusgarritasunaren ondorio dira, beste emakume eta LGTBI+ pertsona batzuentzat nor bere mugak gainditzearen eredu positibo bihurtu izanik.

Emakume hauek beren buruez harro egotera eta ahalduntzera eraman dituen prozesua afera pertsonal gisa interpretatu

¹⁸ Zoriona bizitzarekiko asebetetzearen kontzeptu gisa ulertuz, gogo-aldarte positibo eta atsegingarri gisa, ongizatearen sentimendu nahiko egonkor gisa, bizitza, oro har, pozgarria dela, zentzua duela eta merezi duela dioen ideiarekin batera agertu ohi dena.

behar da, baina era berean eta batik bat, arrakasta sozial gisa eta historikoki emakumeei euren sexualitatearen eta bizitzaren jabe izatea eragotzi dieten eta eragozten dieten oztopo sexistak gainditu izanaren ikur gisa.

Zalantzarik gabe, emakume horiek haizearen kontra ibili dira beste emakume batzuekiko beren erakarpena bizitzeko eskubidea defendatzeko, eta baliabideak dituztela frogatu dute, batzuetan susmagaitzak gainera, erabat edo batere heterosexualak ez zirela jabetzean abiarazi behar izan zuten borroka-prozesuan. *Botere patriarkalaren nahia izan da kolektibo lesbikoa helduarora inoiz ez heltzea. Ez existitzearen edo existentzia dramatikoa izatearen sentimendua eragitea estrategia ona da deuseztapenerako* (Isabel Franc/Lola Vanguardia 2007). Egoera gogor horietan eusteak, nor bere burua berregiteak eta ingurunea eraldatzeko xedez modu kolektiboan antolatzekak balio izugarria dauka, balentria bat da.

Kolektiboak balio al du aniztasunetik abiatutako ahduntze-espazio gisa? Eta zer zentzutan?

Elkarrizketatutako emakume guztiek azpimarratu dute kolektiboetan sartzearen garrantzia, hau da, antzeko errealitateak bizitzen ari diren edo bizi izan dituzten beste pertsona batzuekin parte hartzeko espazioetan. Oro har, kolektibo batean egoteak euren lesbianismoa eta orokorrean lesbianismoa gogor defendatzeko balio izan diela nabarmentzen dute, lesbianismoa edozein emakumek izan dezakeen sexualitate gisa defendatzeko eta sexu- eta genero-aniztasunarekiko adeitsuagoak diren eremu sozialak sortzeko.

Sortu dituzten edo parte hartzen duten kolektiboetan, esperientziak partekatzeko espazioak, erreferentziazko espazioak edota LGTBI+fobiari aurre egiteko beste tresna batzuk eskuratzeko espazioak aurkitu dituzte. Espazio horietan, lehen ez zuten indar bat eskuratu dute, eta gertuko ingurunea eraldatzearen aldeko apustua egin dute.

Ikasteko eta euren antzeko egoeretan dauden pertsonekin batera erasoei aurre egiteko moduak lantzeko espazio gisa jardun dute kolektiboek. Talde horietan, egunerokotasunean gertatzen diren eraso, bereizkeria edota zaurgarritasun horiek elkarrekin identifikatu eta partekatu ditzakete, eta horiei buruz hausnartu dezakete. Puntu hori oso garrantzitsua izan da lesbiana askorentzat, izan ere, euren historian zehar kolektiboak ikusgarriago agertzen laguntzeaz gain, laguntza eskatzerakoan zeukaten bizi-egoerari erantzuten jakin baitute kolektibo horiek.

Segurtasuna zaintzeari dagokionez, erakundeen arteko elkartasunak ere garrantzi handia duela diote, izan ere, arlo pertsonalean aipatu den eran, aurre-egiteko prozesuetan babes-sareak oso elementu positibo gisa identifikatzen baitira. Elkartasunezko aliantza horiek LGBTI kolektiboek euren artean edota gainerako mugimendu sozialekin sortu ditzakete.

Ba al daude gure kolektiboetan prozesu inklusiboak sortzen laguntzen diguten erreferenteak?

Zenbait emakumek mugimendu feminista izendatu dute auto-onarpena bultzatzen duen kolektibo gisa, eta euren buruak ulertzeko prozesuan irakasgai ugari eman dizkiela diote. Ildo

horretatik, maiz, lagun feministekin egotea zeinen garrantzitsua izan den azpimarratu dute, batzuetan LGTBI+ mugimenduaren barruan aurkitu duten matxismoa jorrazteko.

Emakume lesbianeiei eta bisexualei dagokienez, feminismoa parte hartzen duten kolektiboetako prozesu barneratzaileak errazten dituen erreferente nagusia dela baieztatu daiteke. Modu desberdin ugartan egiten du hori:

- » Emakumeen sexualitateari buruzko diskurtso orokorrean aldarrikapen lesbikoak txertatuz. Emakume feminista asko erreferente bihurtu dira lesbiana askorentzat, kalera aske izateko beldurrik gabe irteten direla ikusi baitute.
- » Lesbianismoa eta bisexualitatea emakumeen izaki autonomo eta burujabeak izateko eskubidearen beste osagai bat bezala defendatuz.
- » Sexualitaterako eskubidea onartuz, munduko leku askotan oraindik ere soilik gizonei aitortzen zaien eskubidea baita.
- » Lesbianen eta bisexualen topaketak ahalbidetzeko benetako espazioak eskainiz, aktibisten taldeak ez ezik lagun-taldeak ere badirelako, elkar onartzeko eta elkartasuna partekatzeko talde gisa funtzionatzen dutenak.
- » Estigma sozialaren aurrean, erresistentzia-esperientzia ugari landuz. Beste inork ez bezala landu du emakumeen autoestimua eta indartze pertsonala eta kolektiboa, gizartearen presioen aurrean.

Mugimendu feminista LGTBI+ emakume askoren koltxoia izan da eta orain ere bada. Lesbianismoaren onarpen sozialak

eta ikusgarritasunak ez lukete egun lortu den maila izango horrenbeste emakume feministaren lanik gabe.

↳ Hausnarketa orokorrak

Bizitza-historien analisisian ikusi dugun eran, hamaika inguruabar pertsonal eta bizitzako une dauden bezalaxe, hamaika estrategia eta tresna erabili dituzte emakumeek. Bada ikasi dugun zerbait: estigmari erantzuteko moduak, aurre-egiteko jokabideak eta eraldatze-estrategiak modu oso desberdinetara erabili daitezkeela egoera bakoitzaren arabera.

Halaber, zera ikasi dugu, erantzuteko moduak ez direla kronologikoki elkarren segidan agertzen, ezta alde zurretik pentsatu eta antolatuta egoten ere, eta ez dela beharrezkoa egungo sexu- eta genero-aniztasunaren errealitatea eraldatuko duen aldaketa sozial bat bilatzea. Horren ordez, eguneroko indarkeriak direla eta, ikerketan parte hartu duten emakumeen bizitzako historiek islatzen dituzten erantzunetako asko egunerokotasuneko eraso LGTBI+fobikoak saihestean eta arintzean oinarritu dira, maiz puntualki eta modu automatikoan.

Emakume horiek proposatzen dituzten erantzunetako asko aldi baterako neurri gisa hasten dira, une jakin bat arintzeko, esate baterako, Mayra eta Jazmínek Puerto Tajadan (Cauca) abiarazitako LGTBI+ pertsona gazteen harrera, denborak aurrera egin ahala kolektibizatu egiten dena eta estrategia antolatu bat bihurtzen dena, bere helburu garbia ingurunearen eraldatze soziala izanik.

Oro har, esan daiteke emakume guztiak bizirauteko modu gisa hasten direla euri esleitzen zaien estigmari erantzuten, eta bizitako esperentziei esker, aurre-egiteko jokabideak eta eraldatze-estrategiak garatzen dituztela. Guztientzat, beren desira lesbikoa funtsezkoa da bai beren bizitza pertsonalari dagokionez, eta baita aurreiritzi LGTBI+fobiko eta sexistez jositako ingurune bat eraldatzeko beharrari dagokionez ere.

Emandako erantzun guztietan honako kategoria hauek ikusi dira:

1. Biziraupen-mekanismoak: estigmari erantzuten

- Lesbianismoaz jabetzean agertzen den hasierako harri-dura
- Lots, erru, zalantza, beldur edo ukapenezko sentimenduak
- Diskurtso sozial heteronormatibo eta sexista batek baldintzatutako sexualitate bat eraikitzea
- Erljioaren eraginari, familiaren presioei eta eskolako jazarpenari aurre egitea.

2. Aurre-egiteko jokabideak

- Desira lesbikoa bizitzeko jaioterritik irtetea
- Sexilioa
- Etxeko ingurunearekin izandako erantzun eta harremanetan oinarrituta, nor bere auto-pertzepzioa eraikitzea eta kudeatzea emakume lesbiana gisa
- Ambiente-lekuetara joatea
- Ekonomikoki burujabea izatea nor bere burua onartzeko.
- Hezkuntza.

3. Eraldatze-estrategiak

- Mugimendu sozialetan antolatzea
- Babes eta elkartasun sare bat sortzea
- Erreferente sozial bihurtzea
- Ikusgarri agertzea
- Bisexualitatea aldarrikatzea
- Emakume lesbianen memoria historikoa aitortzea

Kolonbiako eta Euskal Herriko gizartean badira generoari eta sexualitateari buruzko arau batzuk, horietatik urruntzen direnak baztertzan dituztenak, eta emakume lesbianeiei ez ezik, gay, trans, bisexual eta sexu- eta genero-identitate indigenak bizi dituzten pertsonen ere eragiten diete. Alderdi hori oso garbi islatu da emakume hauek eskuzabaltasunez eskaini dizkiguten historietan. Eremita desberdinetan (eskolan, lanean, familian, elizan, espazio publikoetan, eta abar) eta euren bizitzan zehar agertzen diren indarkeriak dira; ondorioz, egiturazko izaera dute, indarkeria sexistek bezalaxe.

Emakumeek biktima gisa bizitzako indarkeriak eta horien ondorioak sistemakoak diren arren, ez diete modu estatikoan aurre egin horiei, baizik eta modu aktiboan egin diete eta egiten diete aurre, estrategietan eta erantzunetan ikus daitekeenez.

Indarkerien intentsitatea eta kopurua emakumeak bizi diren testuinguruaren arabera da. Kolonbiak eta Euskadik dituzten araudiak nahikoa dira estatuak pertsonen babesa bermatu dezan, euren sexualitatea edo generoa dena delakoa izanda ere, baina errealitateak gordintasunez erakusten digu hori ez dela horrela izaten. Elkarrizketatutako emakumeen

arabera, bi testuinguru horietan asko dago egiteke. Aldiz, bizitza-historiek oso egoera sozial desberdinak islatzen dituzte jasotako indarkeriei dagokienez.

Kolonbiako Santander de Quilachao eta Puerto Tejadako emakumeek euren gorputzetan eta euren subjektibotasunean bizi dituzten indarkeriak Euskadiko emakumeek bizi dituztenen antzekoak dira, baina haien intentsitatea eta ondorioak ez dira berdinak. Kolonbian bizi diren emakumeek beren bizitzak alarma-egoeran daudela adierazten dute beren kontakizunetan. Haien borrokak indarkeria horri eta indarkeria horren berehalako ondorioei zeharo lotuta daude.

Agerikoa da Euskadin kokatutako emakumeek maila baxuko indarkeria bizi dutela eta ingurune atsegin eta harkorrago batean daudela, non beren kide kolonbiarren alerta-egoerarik gabe eraikitzen dituzten beren bizitzak. Horrek ez du esan nahi LGTB+fobia gaingaituta dagoenik, jakina. Badakite beste tresna batzuk erabiliz egin behar zaiola aurre, berehalako erantzunen ordean, modu analitikoagoan, indarkeriak mende baldean hartzen dituen forma sotilak agerian jarri ahal izateko.

Emakume guztiek, bai Kolonbiakoek eta bai Euskadikoek, erronka baten aurrean jartzen gaituzte; lesbianismoa eta bere borrokak soslai heteronormatibo, etnozentriko, sexista edo neoliberalik gabe lantzea, inor ahaztuta utziko ez duen elkarrizketa lokal/global batean.

Lerro hauei amaiera emateko eskerrak eman nahi dizkiet, be-
rriz, Verónica, Lorena, Mayra, Jazmín, Carito, Eider eta Cris-
tiniari. Haiek gabe ezinezkoak ziratekeen dokumentu honetako
hausnarketak.

Bibliografía

- Mujika Flores, Inmaculada et al. (2015). *Lesbianak Legez eta Bidez*. Euskadi: ALDARTE.
- Allard, Olivier, (2013) Pueblos indígenas e identidades de género: el dualismo sexual sometido a discusión, *Revista Sexología y Sociedad* 2013; 19(1): 64-73 ISSN 1682-0045 (Bertsio elektronikoa)
- BUTLER, Judith, (2001) El género en disputa. El feminismo y la subversión de la identidad, Ed. Paidós, Mexiko,
- Memoria Historikoari buruzko Zentro Nazionala (2015). *Aniquilar la diferencia. Lesbianas, gays, bisexuales y transgeneristas en el marco del conflicto armado colombiano*. Bogotá: CNMH-UARIV-USAID-OIM.
- COLL-PLANAS, G. (2012). *El circo de los horrores. Una mirada interseccional a las realidades de lesbianas, gays, intersex y trans*. En *Intersecciones: cuerpos y sexualidades en la encrucijada*, (255-276).Barcelona: Bellaterra
- COLL-PLANAS, G. (2013). *Dibujando el género*, Bartzelona. Egales
- Franc, I./Vanguardia, L., del pozo a la hiena, (2007): Humor e ironía en la llamada literatura lésbica”, en Simonis, A. (eda) *Cultura, homosexualidad y homofobia vol. II/Amazonia: retos de visibilidad lesbiana*, Bartzelona, ed. Alertes,

Emakume lesbianak, biziraupenetik eraldaketara:
Kolonbiako eta Euskadiko historiak uztartzen.

- FELGTB/ COGAM (2013), *Estudio 2013 sobre discriminación por orientación sexual y/o identidad de género*, Madril
<http://www.felgtb.org/rs/2447/d112d6ad-54ec-438b-9358-4483f9e98868/bd2/filename/estudio-2013-sobre-discriminacion-por-orientacion-sexual-y-o-identidad-de-genero-en-espana.pdf>
- Colectivo NTM, (2014) Informe “*Estado de Violencia. Diagnóstico de la situación de personas LGTBIQ en Lima Metropolitana*”, Lima, <http://descarga.notengomiedo.pe/archivo/No%20Tengo%20Miedo%20-%20Estado%20de%20Violencia.pdf>
- ILGA (2019) *Homofobia de estado*
https://ilga.org/downloads/ILGA_World_Homofobia_de_Estado_Actualizacion_Panorama_global_Legislacion_diciembre_2019.pdf
- INAI/NABI, Realidades, necesidades y discursos LGTBI. Estudio de situación de los colectivos y asociaciones LGTBI en la Comunidad Foral de Navarra. 2017,
- GONZALEZ PEREZ, Josué, Hablemos sobre las violencias machistas, en VIENTO SUR, 146/ 2016ko ekaina
- Red Regional de Información Sobre Violencias LGBTI en América Latina y el Caribe (2019), Informe “*El prejuicio no conoce fronteras Homicidios de lesbianas, gay, bisexuales, trans e intersex en países de América Latina y el Caribe 2014 – 2019*”
<https://colombiadiversa.org/publicaciones/el-prejuicio-no-conoce-fronteras/>
- Mujika, I. (2008). Visibilidad y participación social de las mujeres lesbianas en Euskadi. Euskadi: Ararteko

- NAHIA, Equipo (2016). Documento marco de las XI Jornadas de Estrategias Positivas de desarrollo, Resistencia al modelo dominante desde la diversidad Sexual y de Género. Bilbo: Agencia Vasca de Cooperación al Desarrollo y el Área de Igualdad, Cooperación, convivencia y Fiestas del Ayuntamiento de Bilbao.
- Pérez Sancho, Begoña (2005), *Homosexualidad, secretos de familia*, Bartzelona, Egales
- Platero, R. (coord.) (2008). *Lesbianas discursos y representaciones*. Bartzelona: Melusina
- Platero, R. (Lucas), *Trans* sexualidades. Acompañamiento, factores de salud y recursos educativos*. Ed. Bellaterra, Bartzelona, 2014